

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

20 aholku hizkera
juridiko-administratiboa
hobetzeko



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Xabier Amatria
Begoña Ayerdi
Urtzi Barrenetxea
Irene Fernandez
Izaskun Zuntzunegi

20 aholku hizkera juridiko-administratiboa hobetzeko

Oñati, 2022



© Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa
Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi

Edizioa: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Administración Pública

ISBN: 978-84-7777-646-8

Maketazioa eta inprimaketa: Grafilur, S.A., Avda. Cervantes, 51-edificio 21 – 48970 Basauri (Bizkaia)

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Ikurren esanahia	11
1. Zerrenda bidez, argiago	
Alternatiba erraza hizkera juridikoaren ohiko paragrafo luzeak desegiteko	13
2. Tartekiak erabiliz gero, ondo kudeatu	
Tarteki bat sartzen dugun bakoitzean eten egiten da diskurtsoaren haria; beraz, garrantzitsua da arretaz txertatzea	17
3. Estilo nominala, neurriz	
Astuna eta hutsa izan daitekeen idazketa estiloa	21
4. Paragrafo eraginkorren propietateak	
Paragrafoak esaldien pilaketa hutsez eratutako testu atalak direla ustez gero, zaila da testu komunikatiboak eratzea	25
5. Erreferentzia-mekanismoak	
Ezinbestekoa da une oro argi uztea testuko zein elementu aipatzen ari garen; bereziki, jada azaldutako elementu bat berriro aipatu nahi dugunean	31
6. Aditz perifrastikoen ordeztasunak, aditz esanguratsuak	
Perifrasiak gramatika aldetik zuzenak dira, baina neurriz erabili behar dira zehaztasunaren mesedetan	37
7. Ezabatu alferrikako esapideak	
Hizkera argira hurbildu nahi badugu, komeni da informaziorik galdu gabe ken daitezkeen adierazpideak ezabatzea	41
8. Ohiko esapide desegoki batzuk	
Testu juridiko-administratibo argiak idatzi nahi baditugu, komeni da formulismo ulergaitzak baztertu eta adierazpide ulergarriak erabiltzea	45
9. Informazio garrantzitsuen, ahalik eta lasterren	
Euskaraz oso errotuta dago aditza esaldiaren amaieran jartzeko ohitura, baina hurrenkera hori ez da komunikatiboena	49
10. Gerundioen okerreko erabilera	
Inguruko hizkuntzen eraginez, esaldi luze eta astunak sortzen ditugu, okerrak eta ulertzeko zailak direnak	53

11. Kontuz erlatibozko egiturekin	
Egiturok ulermena oztopa dezakete, batez ere esaldi luzeetan, informazio garrantzitsua atzeratzen baita	57
12. Esaldi aktiboak, naturalagoak	
Esaldi pasiboak baino adierazkorragoak eta zehatzagoak dira	61
13. Baztertu kalko okerrak	
Kalkoek eragina daukate hizkuntzaren garapen lexikoan, baina desegokiak dira premiarik gabe egiten direnean	65
14. Besteen diskurtsoa erreproduzitzea	
Ohikoa da testu juridiko-administratiboetan diskurtso zatiak hitzez hitz aipatzea, baina bata bestearen atzetik kateatutako aipamenei ulergarritasuna oztopatzen dute	69
15. Komaren erabilera	
Gaizki puntuatutako testuek interpretazio erroreak eragin ditzakete, eta ulergaitzak ere izaten dira batzuetan	75
16. Ezezko esaldiak, ilunago	
Oro har, errazago ulertzen ditugu baiezeko esaldiak: zehatzagoak eta argiagoak dira	81
17. Letra larria, beharrezkoa denean bakarrik	
Testu juridikoetan, letra larria helburu espresiboarekin erabiltzen da, baina testuak iluntzen ditu eta oker erabiltzen da maiz	85
18. Laburtzapenak	
Hobe saihestea, ongi erabiltzen ez badira, testuen ulermena argitu beharrean ilundu egingo dute eta	91
19. Aditzari buruzko zalantzak	
Testu jatorrak sortzeko, aldentu gazteleraren morrontzatik eta erabili euskararen berezko egiturak	95
20. Lexiko egokia aukeratzeko zenbait irizpide	
Herritar arruntak ulertzeko moduko terminoak erabiltzea komeni da; zehaztasunari eta argitasunari kalterik egin gabe	99
Bibliografia	103

Aurkezpena

Zuzenbidea gizarte-bizikidetzara arautzeko ematen den erregelen sistema da. Hizkera espezializatua darabil, hizkera juridikoa deritzona eta berezko ezaugarriak dituena. Hizkera juridikoak lotura estua dauka herritarren bizitzarekin eta interesekin, eta hori ezin saihestu daiteke gizakiaren bizitzaren parte izango baita jaiotzen denetik hiltzen den arte. Hortaz, lege-xedapenak dira Administrazioaren eta herritarren arteko lehen zubia, herritarren eta administrazioaren arteko eskubide- eta betebeharrak lotura sortzen duena. Horregatik, esan dezakegu hizkera juridikoa dela hizkera teknikoetan garrantzitsuenetakoa bat.

Hizkera juridikoa euskaraz: historia laburra

Euskararen bilakaeran, gaurdaino, arlo juridiko-administratiboan euskara ez da ofiziala izan (salbu eta 1936-1937 aldian), eta erabat arrotza izan da urte luzez. Euskarak ia ez dauka hizkera juridiko historikorik, eta dagoen apurra ezezaguna da. Nolanahi ere, azken urteotan (1978an finkatzen dute egile batzuek gaur egungo hizkera juridikoaren abiapuntua), euskararen normalizazioaren testuinguruan aurrerapauso nabarmenak eman dira esparru juridikoan, eta ahalegin handia egin da euskara juridikoaren corpusa zabaltzeko eta osatzeko. Horri esker, eskuragarri ditugu testu eta material, hiztegi eta glosategi ugari. Aipatzekoa da, gaur, euskaraz inoiz baino testu juridiko gehiago sortzen dela gure erakundeetan etengabeko lege eta arau-sortzearen ondorioz; hala eta guztiz ere, Hego Euskal Herriko administrazioetan, testu juridiko gehienak gaztelaniaz sortu eta euskarara itzultzen dira.

Hizkera juridikoa iluna: argitu beharra

Azkenaldian, auzitan dago testu horien kalitatea, eta hala erakusten dute gaztelaniazko hizkera juridikoa hobetzeko eta argiago bihurtzeko egiten ari diren proiektu eta saioek. Gauzak horrela, itzultzaileek nekez hobetuko dituzte hizkuntzaren eta komunikazioaren ikuspegitik ilunak eta nahasiak diren testuak, nahiz eta batzuetan xede hizkuntzan testu argiagoak lortu.

Hizkera juridikoa herritarrengana hurbiltzeko saiakera asko egin izan dira munduan, eta areagotu egin dira demokrazian sakondu ahala, oso lotuta baitaude argitasuna eta demokrazia. Sinplea da arrazoia: legeak herriaren borondatearen adierazpena baldin badira, hartzaileek ulertzeko moduan idatzi behar dira.

Izan ere, frogatuta dago hizkera juridiko-administratiboa argitu dezakegula, zehaztasuna eta segurtasun juridikoa galdu gabe. Horretarako, arreta jarri behar dugu erabili ohi ditugun hizkuntza-mekanismoetan, horietako batzuek, argitzen lagundu beharrean, ilundu egiten baitute testuen interpretazioa.

Testu juridikoetan idazketa argiaren estrategiak aplikatu behar ditugu. Baina, zehazki, zer esan nahi du horrek? Ez du esan nahi testuen kalitate-maila jaitsi behar denik, baizik eta alderantziz. Hizkera baldartzen eta iluntzen duten elementuak ezabatu, ordezkatu edo leundu behar dira; besteak beste, joskera nahasia, esaldi amaiezinak, puntuazio traketsa, arkaismoak eta abar.

«20 aholku hizkera juridiko-administratiboa hobetzeko» proiektua

Esku artean duzun argitalpena ez da ezerezetik sortua. Batetik, IVAPek urteetan administrazio hizkera hobetzeko ahaleginean egindako lana izan dugu elikagai. Bestetik, ekimen hau proiektu zabalago baten barruan kokatu behar dugu. Izan ere, liburu honek aurrekari bat du gaztelaniaz (*20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos*); hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren eskaera bati erantzuteko abiarazi genuen proiektua. Horri jarraipena eman guran edo, euskarazko egitasmoa jarri genuen martxan geure ekimenez. Oraingoan baina, Eusko Jaurlaritzara ez ezik, hiru foru aldundietara eta UEMAKo udaletara ere hedatu genuen.

Gaztelaniazko proiektuan bezala, 20 unitate didaktiko labur eta zehatz prestatu genituen, eta, astean behineko maiztasunez, posta elektronikoz bidali genizkien aurrez aukeratutako 250 langileri. Aste horietan, hartzaile eta igorleen arteko komunikazio-kanalak ere eratu genituen.

Berrikuntza bezala, iruditu zitzaigun proiektuaren alde praktikoa indartu behar genuela. Eta, halaxe egin genuen: gaur egun, «20 aholku hizkera juridiko-administratiboa hobetzeko» ikastaroa eskaintzen diegu Moodlen Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatu publikoei.

Liburuaren helburuak

Modu erraz eta argian idatzitako proiektu hau ez da hizkuntza juridikoari buruzko eskuliburu bat, ezta teoria eta ariketak tartekatzen dituen ohiko argitalpen bat ere. Unitate hauekin, batez ere, testu juridiko argien idazketan eragiten duten elementuak azaldu nahi izan ditugu. Gure asmoa da erakustea, ezen, diskurtso juridikoko zenbait ezaugarritan arreta jarritz gero, askoz testu argiagoak idatz ditzakegula, genero honetako idatzien berezko zehaztasuna kaltetu gabe.

Liburu honen xedea ez da hausnarketa sakonak egitea, baizik eta arazo jakin batzuei irtenbide praktikoa eskaintzea. Baina, zeharka bada ere, baditu bestelako helburu batzuk ere: arazoari buruzko kontzientzia sortzea, esaterako. Horrekin esan nahi dugu pertsona batek ez badu legea —eta lege horretatik eratorriko testuak— ulertzen, ezin izango dituela bere eskubideak behar bezala egikaritu, eta, ondorioz, diskriminazio larria jasaten ari dela.

Hortaz, testu juridikoak idazten diharduten profesionalak honako honetara animatu nahi ditugu: testuak irakurriko dituen hartzailerengan pentsatzera, ulermena erraztuko duten diskurtso-estrategiak erabiltzera eta,aldi berean, herritarrak nahastuko dituzten diskurtso-elementuak baztertzerara.

IVAPeko Administrazio Hizkera Atala

Ikurren esanahia



Ez dugu gomendatzen.



Gomendatzen dugu.

1. Zerrenda bidez, argiago

Ohituta gaude testu juridikoetan paragrafo trinkoak idazten, eta, ondorioz, esaldien arteko loturak adierazteko lokailu asko erabiltzen. Hala ere, eduki bera zerrenda bidez eskainiz gero, errazago osatzen da, eta argiago ulertzen.



Egindako lantegietatik ondorioztatu ahal izan da, asko aurreratu bada ere, Gipuzkoan kontziliazioaren eta berdintasunaren arteko bidea luzea dela oraindik. **Horrez gain**, argi ikusi dugu proposatutako neurriak tradizionalerik izateak agerian uzten duela neurri berritzaileagoak abian jartzeko beharra; **eta, gainera**, nabarmendu behar dela Administrazio publikoak funtsezko izan behar duela kultura-aldaketaren trakzio-elementu nagusia den aldetik, eta eredu izan behar duela politikak ezartzeko garaian. **Azkenik**, aurreko guztiari gehitu beharko genioke beste ideia bat: politika gauzagarriak ezarri beharko lirakeela.



Egindako lantegietatik honako hauek ondorioztatu ahal izan dira:

- Asko aurreratu bada ere, Gipuzkoan kontziliazioaren eta berdintasunaren arteko bidea luzea da oraindik.
- Proposatutako neurriak tradizionalerik izateak agerian uzten du neurri berritzaileagoak abian jartzeko beharra.
- Administrazio publikoak funtsezko izan behar du, kultura aldatzeko trakzio-elementu nagusia baita.
- Administrazio publikoak eredugarri izan behar du politikak ezartzen.
- Politika gauzagarriak ezarri behar dira.

1.1. Irakurgarritasuna hobetzeko tresna eraginkorrak

Testu juridikoetan, paragrafo trinkoak idazteko joera daukagu. Paragrafo luzeak ulertzeko zailak izaten dira, baldin eta ez badugu informazioa modu errazean barneratzeko moduan egituratzen. Irakurketa erraztu dezakegu, esaterako, informazioa ordenatzeko testu markatzaileak erabilia.



Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen otsailaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa indarrean jarri zenean, 2001eko otsailaren 13an, nabarmen aldatu ziren adingabeen epaitegiek gazteei ezarri behar dizkieten neurriak gauzatzeko baldintzak; hau da, erantzukizunaren adina 12-16 adin-tartea izatetik 14-18 adin-tartea izatera igaro da, aplika daitezkeen zehapenek iraupen luzeagoa dute eta larriagoak dira eta neurriak ezartzeko eta gauzatzeko prozesuaren arautegia aurrekoa baino zehatzagoa da.



Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen otsailaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa indarrean jarri zenean, 2001eko otsailaren 13an, nabarmen aldatu ziren adingabeen epaitegiek gazteei ezarri behar dizkieten neurriak gauzatzeko baldintzak: **batetik**, erantzukizunaren adina 12-16 adin-tartea izatetik 14-18 adin-tartea izatera igaro da; **bestetik**, aplika daitezkeen zehapenek iraupen luzeagoa dute eta larriagoak dira; **eta, azkenik**, neurriak ezartzeko eta gauzatzeko prozesuaren arautegia aurrekoa baino zehatzagoa da.

Dena den, testuen irakurgarritasuna hobetzeko teknikarik eraginkorrena zerrrendak erabiltzea da. Besteak beste, zerrrendek agerian uzten dute paragrafo batean bildutako item kopurua, eta irakurleari item zehatz bat aurkitzen laguntzen diote.



Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen otsailaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa indarrean jarri zenean, 2001eko otsailaren 13an, nabarmen aldatu ziren adingabeen epaitegiek gazteei ezarri behar dizkieten neurriak gauzatzeko baldintzak. Hauek dira aldaketa nabarmenenak:

- Erantzukizunaren adina 12-16 adin-tartea izatetik 14-18 adin-tartea izatera igaro da.
- Aplika daitezkeen zehapenek iraupen luzeagoa dute eta larriagoak dira.
- Neurriak ezartzeko eta gauzatzeko prozesuaren arautegia aurrekoa baino zehatzagoa da.

Zerrendak bi motatakoak izan daitezke: a) bertikalak, itemak esaldi edo perpaus baten azpian pilatzen badira (aurreko adibidea, esaterako); eta b) horizontalak edo integratuak, esaldian bertan txertatzen badira (paragrafo honetan erabili duguna, adibidez).

Noski, ezin diegu zerrenda-formatua eman gure testuetako paragrafo guztiei, egitura errepikatzek asko astuntzen baitu testuen irakurketa.

1.2. Ohiko akatsak zerrendetan

1.2.1. Aurkezteko elementurik ez erabiltzea

Zerrenda aurkezteko, ez da nahikoa bi puntu jartzea: esaldi argi eta deskriptibo bat erabiltzea komeni da; zenbat eta deskriptiboagoa, hobe. Ez du zertan esaldi osoa izan; zerrendako elementuetako bakoitzak osa dezake. Esaterako, nahikoa izan daiteke item kopurua aipatzea.



Funtzio Publikorako Sarbidea arautzen duen Foru Lege proposamena dela eta, txosten juridiko horren arabera:

- Ez du akats edo hutsegite juridikorik eskumenei dagokienez.
- Segurtasun juridikoaren printzipioa errespetatzen du.
- [...].



Funtzio Publikorako Sarbidea arautzen duen Foru Lege proposamena dela eta, **honako hauek dira txosten juridiko horretan zehaztutako ondorio nagusiak:**

- Ez du akats edo hutsegite juridikorik eskumenei dagokienez.
- Segurtasun juridikoaren printzipioa errespetatzen du.
- [...].

1.2.2. Egitura homogeneousak ez idaztea

Egitura homogeneousak erabiltzeko edukiak errazago ulertzen laguntzen du. Adibide egokian, zerrendako itemek egitura bera dute; kasu honetan, nominalizazioa.



Euskadiko Kooperatiben Legeak honako helburu hauek bete nahi ditu:

- Eginiko aldaketak testu bakar batean bateratu nahi ditu.
- Kooperatiba mota jakin batzuen lege-konfigurazioa berrikusi.
- Sozietateen zuzenbideko gidalerro nagusiak gehitu.
- Hobekuntza juridiko-teknikoak ezartzea.



Euskadiko Kooperatiben Legeak honako helburu hauek bete nahi ditu:

- Eginiko aldaketak testu bakar batean **bateratzea**.
- Kooperatiba mota jakin batzuen lege-konfigurazioa **berrikustea**.
- Sozietateen zuzenbideko gidalerro nagusiak **gehitzea**.
- Hobekuntza juridiko-teknikoak **ezartzea**.

2. Tartekiak erabiliz gero, ondo kudeatu

Arazorik gabe komunikatzeko, beharrezkoa da tartekiak arretaz txertatzea. Kontuan izan behar dugu tarteki bat sartzen dugun bakoitzean eten egiten dela diskurtsoaren haria. Zenbat eta luzeagoa izan tartekia, edo zenbat eta tarteki gehiago erabili esaldi batean, aukera gehiago izango da irakurleak esaldia berrirakurri behar izateko edo esaldia gaizki ulertzeko.



Agindua, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomia Garapenerako sailburuarena, martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuaren bidez (1993ko martxoaren 28ko EHAA), eta hori garatzeko 1993ko ekainaren 15ean emandako Aginduaren (1993ko uztailaren 3ko EHAA) eta 1993ko urriaren 11ko Aginduaren bidez (1993ko urriaren 20ko EHAA) araututako dirulaguntzak jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dituen.



Agindua, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomia Garapenerako sailburuarena, martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuaren bidez¹, eta hori garatzeko 1993ko ekainaren 15ean emandako Aginduaren² eta 1993ko urriaren 11ko Aginduaren³ bidez araututako dirulaguntzak jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dituen.

¹ 1993ko martxoaren 28ko EHAA

² 1993ko uztailaren 3ko EHAA

³ 1993ko urriaren 20ko EHAA

2.1. Zenbait neurri oztopoak saihesteko

Dokumentu juridikoek informazio kopuru esanguratsua biltzen dute: elementuen arteko erlazioa zein den, azaldutako ekintzetan parte hartzen duten pertsonak zeintzuk diren, gertakarien tokia, eragiten duten objektuak, hala nola arrazoiak eta ondorioak. Informazio hori guztia modu objektiboan eta zehatz eman behar da.

Hortaz, ez da arraroa izaten tartekiz betetako esaldiak topatzea; hau da, gramatika aldetik autonomoak izanik, esaldien gaiarekin lotutako informazio osagarria gehitzen duten elementuz betetako esaldiak topatzea.

Tartekiak erabiliz gero, komeni da honako neurri hauek kontuan hartzea:

2.1.1. Eraman atzealdera

Tartekiak esaldiaren edo paragrafoaren bukaeran kokatuz gero, ez da eteten diskurtsoaren haria.



Biztanleriaren eta enpresen kolaborazioa legez beharrezkoa da galde-sortak erantzutean, estatistikek interes publikoaren izaera baitute, Eusko Jurlaritzak finkatua, Estatistikaren Euskal Planean eta haien estatistika ekintzen **(Euskadiko Komunitate Autonomoko Estatistikaren, apirilak 23ko, 4/1986 Legea, artikulua 9tik 16ra eta 19tik 23ra)** Urteko Programetan integratuta dauden estatistika guztietan.



Biztanleriaren eta enpresen kolaborazioa legez beharrezkoa da galde-sortak erantzutean, estatistikek interes publikoaren izaera baitute. Izaera hori Eusko Jurlaritzak finkatu zuen Estatistikaren Euskal Planean eta haien estatistika ekintzen urteko programetan integratuta dauden estatistika guztietan **(Euskadiko Komunitate Autonomoko Estatistikaren, apirilak 23ko, 4/1986 Legea, artikulua 9tik 16ra eta 19tik 23ra)**.

2.1.2. Markatu hasiera eta amaiera

Ezinbestekoa da tartekien hasiera eta amaiera ortografia-zeinu egokiz markatzea. Tartekiak labur eta sinpleak badira, koma erabiliko dugu; luze eta konplexuak badira, berriz, parentesia zein marra.



Dekretu honetan araututako laguntzak, familia eta lan bizitza bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duen martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazketan arautzen denez, 2015eko apirilaren 1etik aurrera baliatu ahal diren diruz laguntzeko moduko jardunetan aplikatuko dira.



Dekretu honetan araututako laguntzak 2015eko apirilaren 1etik aurrera baliatu ahal diren diruz laguntzeko moduko jardunetan aplikatuko dira (Familia eta lan bizitza bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duen martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazketan arautzen denez).

2.1.3. Erabili oin-oharrak pilaketak saihesteko

Esaldi batean tartekien pilaketak saihesteko, informazioa oin-oharretara atera dezakegu.



Hori guztia horrela izan dadin, erakundeen arteko hitzarmena egin nahi da liburutegietako langileentzako trebatze eta aholkularitza programa bat bideratzeko eta, hain zuzen ere, horretarako bidea ematen dute, alde batetik, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 15. artikulua ezarritakoak eta, bestetik, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina onartu zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluko 1. puntuaren c) idatz-zatiak.



Hori guztia horrela izan dadin, erakundeen arteko hitzarmena egin nahi da liburutegietako langileentzako trebatze- eta aholkularitza-programa bat bideratzeko; horretarako bidea ematen dute, alde batetik, 30/1992 Legeak¹, eta, bestetik, 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak².

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa (15. artikulua).

² Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina onartu zuen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 16koa (3. artikulua, 1. puntua, c) idatz-zatia).

2.2. Kontuan izateko irizpideak

Garrantzitsuena esaldi nagusia eta tartekiak bereiztea da eta, diskurtsoa ez eteteko, tartekiak ondo kudeatzea. Horretarako, kontuan izan behar ditugu honako irizpide hauek:

- **Kopurua:** Saia zaitez, gehienez ere, esaldi bakoitzeko tarteki bat idazten. Tartekiak pilatzen bazaizkizu, jar itzazu aparteko esaldietan.
- **Luzera:** Saiatu ahalik eta tarteki laburrenak idazten. Ahal dela, baztertu tartekien barruko tartekiak dauzkaten esaldiak.
- **Kokapena:** Jarri tartekiak erreferentearen aldamenean. Luzeak izanez gero, egokiena da elementu esanguratsuenak (izena eta aditza) atzeratzea, elkarren ondoan irakur daitezen. Oin-oharretara ere eraman daitezke.

3. Estilo nominala, neurritz

Hizkera juridikoan, estilo nominalerako joera handia dago gaztelaniaz. Eta euskaraz ere joera bera azaltzen da testuetan, horrelako egiturak kopiatuta erregistroa jasotzen dugulakoan. Hala ere, kontuan izan behar dugu aditza izen bihurtzen dugunean, sarri testuaren ulermena oztopatzen dugula.



Programaren bidez lortutako emaitzen **azterketari ekingo** zaio indarraldia amaitu baino lehen. Agertutako arazoen **deskribapena egingo** da, eta, ondoren, beharrezkoak diren aldatetarako **proposamenak egingo** dira. Azkenik, arduradunak aldateten **onarpena ematen** badu, talde eragileak programaren nondik norakoan **berridazketa burutuko** du.

Zeharo baztergarria ez bada ere, sarriegi jotzen dugu estilo horretara.

Hobe da aditz estiloa erabiltzea, modu adierazkorragoan helaraziko baitugu informazioa.



Programaren bidez lortutako emaitzak **aztertuko** dira indarraldia amaitu baino lehen. Agertutako arazoak **deskribatu** ondoren, beharrezkoak diren aldatetak **proposatuko** dira. Azkenik, arduradunak aldatetak **onartzen** baditu, talde eragileak programaren nondik norakoak **berridatziko** ditu.

3.1. Ulermena oztopatzen du

Estilo nominaleko esaldietan, aditz nagusia (beheko adibidean, *berrikusi*) ezkutatu eta izen bilakatzen da (*berrikuspena*), eta aditz abstraktu eta orokor bat gehitzen da (*burutu*). Adibidean ikusten dugunez, ulermena oztopatzen

duen bi ondorio dakartza estilo nominalak: esaldia luzatzea eta mezua modu abstraktuagoan eskaintzea.

Estilo nominala



- Prezioen **berrikuspena** pleguaren 5. atalean azaldutako eran **burutu** da.
- Prokuradorearen **izendapena egiteko** prozesua jarri da martxan.
- Osoko bilkurak behin-behineko **onarpena eman** zion atzo aparkalekuen ordenantzari.
- Zigor Kodean kartzela-zigorra ez den bestelako aukeren **aurreikuspena egiten** da kasu jakin batzuetarako.

Aditz estiloa



- Prezioak pleguaren 5. atalean azaldutako eran **berrikusi** dira.
- Prokuradorea **izendatzeko** prozesua jarri da martxan.
- Osoko bilkurak behin-behinean **onartu** zuen atzo aparkalekuen ordenantza.
- Zigor Kodeak kartzela-zigorra ez den bestelako aukerak **aurreikusten** ditu kasu jakin batzuetarako.

3.2. Neurritz erabiltzekoa

Estilo nominala ez da zertan zeharo baztertu; neurritz erabiliz gero, baliagarria izan daiteke testuari izaera objektiboa edo inpersonala emateko. Aitzitik, gehiegikerian ez erortzea da kontua, eta eragiten dituen kalteak aintzat hartuta, beharrik gabe ez jotzea horretara.



Elkarteen parte-hartzearen **antolaketa**n hasi aurretik, jasotako ekarpenen **balorazioa egitearen aurreikuspena** egin da.



Elkarteen parte-hartzea **antolatzen** hasi aurretik, jasotako ekarpenak **baloratzea aurreikusten** da.

3.3. Aditz ahulak

Estilo nominalak esaldiaren aditza eduki gabeko elementu (aditz ahul) bilakatzen du, eta, horren ondorioz, perifrasiak sortzen ditu egitura sinpleagoen orde. Esaldi argiak osatzeko modurik egokiena da ekintzak aditz esanguratsuen bidez ematea.



- Legebiltzarrean familien zaintza lanen kontziliaziorako neurriak **hartzeari ekingo** zaio.
- Udalaren eskutik erdiguneko berriztapena **gauzatu** da.
- Etxe berriak **egitearen** ondorioz sortu diren kalteengatik **salaketa jarri** dute.
- Erakunde guztiek energia kontsumoaren **neurketa burutzeari baietz esan** diote.



- Legebiltzarrek familien zaintza lanen kontziliaziorako neurriak **hartuko** ditu.
- Udalak erdigunea **berriztatu** du.
- Etxe berriak **eraikitzeak** sortu dituen kalteak **salatu** dituzte.
- Erakunde guztiek energia kontsumoa **neurteza onartu** dute.



Laburbilduz

Aditz estiloa estilo nominalaren orde erabiltzen badugu, esaldi laburragoak sortuko ditugu, idazteko modu dinamiko, adierazkor eta aberasgarriagoa lortzeaz gain. Horretarako, hona hemen bi aholku hauek:

- Jarri ekintza aditzean.
- Erabili aditz esanguratsuak.

4. Paragrafo eraginkorren propietateak

Paragrafoen forma eta edukia zaintzeak erabateko garrantzia dauka testuen komunikagarritasunean; eduki zehatzago eta ulerterrazagoak sortzeko, ezinbestean zaindu beharreko elementuak dira. Testuetako osagai horien egituratzeari arreta eskaintzeak irakurketa ez ezik, idazketa-lana bera ere errazten du.

Paragrafoak esaldien pilaketa hutsez eratutako testu atalak direla ustez gero, zaila da testu komunikatiboak eratzea. Baldin eta paragrafo eraginkorrak eratu nahi baditugu, komeni da horietako bakoitza zentzu osoko unitate gisa lantzea.



Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, eskabideak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, erakunde interesdunari errekerituko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko eta eskaeran atzera egin duela ulertuko da egiten ez badu, ebazpena eman ondoren.



Eskabideak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, erakunde interesdunari errekerituko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko. **Horrela egiten ez badu**, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, ebazpena eman ondoren. **Hori guztia** Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Paragrafo eraginkorrak idazteko orduan, komeni da kontuan izatea hemen aipatzen ditugun lau propietateak.

4.1. Gai bakarra

Paragrafo batek ez du izan behar egituratu gabeko ideia-multzo hutsa. Katalogoek bezala, testu bateko paragrafo bakoitzak edozein irakurleren balizko zalantza zehatz jakinei erantzun behar die. Hortaz, komeni da paragrafo bakoitza aparteko objektu legez lantzea; alegia, testuaren esanahi orokorraren baitan helburu jakina duen zentzu-unitate gisa, ideia nagusi bat eta informazio osagarria dituena.

Horrela izanik, elkarri lotutako hainbat gai konplexu biltzen dituen paragrafo bat osatu dela antzemanetz gero, egokiena da informazio-bloke hori hainbat paragrafotan zatitzea.

4.2. Egitura argia

Paragrafo baten barne-egitura ondo definituta badago, edukia errazago irakurriko da. Aitzitik, elkarren arteko harremanik ez duten ideien pilaketa hutsak ulermen arazoak sorrarazten ditu. Elementuak argi antolatzeak giltzarria esaldi nagusia da, zeinaren orbitan kokatzen diren gainerako esaldiak. Ondorioz, perpaus nagusia identifikatzeak eta nabarmentzeak irakurketa errazten du.

Nabarmentzeko modurik behinena ideia nagusia paragrafoaren hasierara aurreratzea da. Modu horretara, irakurleek erraz identifikatuko dute paragrafoaren ideia nagusia eta, ondorioz, hobeto jarraituko dute testuaren haria.



Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28.1 artikulua ezartzen du nahitaezkoa dela bitarteko elektronikoen bidez komunikatzea, baldin eta interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen kolektiboak badira eta, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, jarduera profesionalagatik edo egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik, bermatuta badute behar diren baliabide teknologikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna. **Ondorioz, eskabidea formulario elektronikoen bidez baino ez dela beteko ezartzen da.**



Eskabidea formulario elektronikoen bidez baino ez da beteko. Horrela ezartzen da Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28.1 artikuluan. Artikulu horren arabera, nahitaezkoa dela bitarteko elektronikoen bidez komunikatzea, baldin eta interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen kolektiboak badira eta, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, jarduera profesionalagatik edo egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik, bermatuta badute behar diren baliabide teknologikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna.

Argi egituratutako paragrafoen bigarren ezaugarri bat esaldien arteko lotura zehatza da. Esaldien arteko harremana zein den argi adieraziz gero, paragrafoaren barne-koherentzia argituko dugu, eta, ondorioz, irakurmena eta ulermena erraztuko. Esaldien arteko loturak ezartzeak («pista» edo «seinale» gisa, testu-markatzaileen bidez) irakurlearen lan-memoria mobilizatzen du, haren arreta pizten baitu.

4.3. Luzera egokia

Beti da errazagoa paragrafo laburrak irakurtzea eta hasieratik amaierara arte ulertzea; izan ere, informazioa unitate laburretan banatuz gero, errazago prozesatuko baitira enuntziatu luzeak. Bestalde, paragrafo bat zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta zailagoa da gaiaren erreferentzia oroimenean aktibo gordetzea.

Auzi horri dagokionez, bada lege-testuetako paragrafoetan ohikoa den beste ezaugarri bat; hain zuzen ere, esaldi bakarreko paragrafo luze ugari izatea. Halakoetan, luzeraz gain, irakurketaren «atsedenleku» diren puntuak falta izaten dira.



Probaren edukia egokitu egingo da eskuratu nahi den heziketa-zikloaren edo diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzen maila baino lehenagoko hezkuntza-etapako curriculumekin bat etortzeko, eta lotura izango du arte plastikoetako eta diseinuko heziketa-zikloek lanbide-arlo bakoitzean dituzten ikasgaiekin, bai eta diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzekin, edozein espezialitatetan.



Probaren edukia egokitu egingo da eskuratu nahi den heziketa-zikloaren edo diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzen maila baino lehenagoko hezkuntza-etapako curriculumekin bat etortzeko. **Edukiak lotura izango du ere** arte plastikoetako eta diseinuko heziketa-zikloek lanbide-arlo bakoitzean dituzten ikasgaiekin, bai eta diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzekin, edozein espezialitatetan.

4.4. Harreman koherentea

Bigarren puntuan aipatutako barne-koherentziaz gain, paragrafo bakoitzak kanpo-koherentzia ere gorde behar du; alegia, testuaren gainerako paragrafoekiko lotura zehatza izan behar du. Koherentzia hori edukiarekin eta formarekin dago lotuta.

Edukiari dagokionez, paragrafo bakoitzeko ideiek testuaren garapen kontzeptuala bermatu behar dute. Formari dagokionez, berriz, paragrafo bakoitzak zehazki adierazi behar du zein konexio duen testuaren beste atal batzuekin. Azken horretarako, testu-markatzaileak erabiltzen dira; esan bezala, irakurketarako orientazio-seinale gisa funtzionatzen duten lokailuak.



Erkidegoaren finantzaketa, oro har, ekintzaren aurrekontuaren % 100era iritsiko ez denez, deialdi honen bidez lortzen diren laguntza ekonomikoak, eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik lor daitezkeenak, Erkidegoaren finantzaketa estaltzen ez duen aurrekontuaren ehunekoa estaltzeko erabiliko dira, proiektu bererako jaso daitezkeen laguntza guztien baturak ez duelarik onartutako aurrekontuaren % 100 gaindituko. Edozein kasutan, baturak % 100 gainditzen badu, laguntza hori dagokion proportzioan gutxituko da.



Erkidegoaren finantzaketa, oro har, ekintzaren aurrekontuaren % 100era iristen ez denez, deialdi honen bidez edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen bidez lortzen diren dirulaguntzak Erkidegoaren finantzaketa estaltzen ez duen aurrekontuaren ehunekoa estaltzeko erabiliko dira.

Nolanahi ere, proiektu bererako jaso daitezkeen laguntza guztien baturak ezin izango du onartutako aurrekontuaren % 100 gainditu. Edozein kasutan, baturak % 100 gainditzen badu, laguntza hori dagokion proportzioan murriztuko da.

Aipatutako lau propietateek berebiziko garrantzia dute testuen paragrafo estrategikoetan. Horrela deritze irakurleen arreta berezia jasotzeko aukera gehien duten paragrafoei; gehienetan, testuen hasierako eta amaierako paragrafoak izaten dira.

Izan ere, zenbait eskuliburuk gomendatzen dutenez, lehen paragrafoak izan beharko luke testu batean idatzi beharreko azken elementua. Modu horretara, testuaren perspektiba orokorra izanik, errazagoa da testuaren irakurketarako pizgarri eta gida eraginkor gisa funtzionatuko duen paragrafo zehatz bat osatzea.



Laburbilduz

Paragrafo eraginkorrek lau propietate betetzen dituzte:

- Gai bakarra biltzen dute.
- Egitura argia dute.
- Luzera egokikoak dira.
- Harreman koherentea gordetzen dute gainontzeko paragrafoekiko.

Propietate horiek zaintzeak garrantzi berezia du paragrafo estrategikoetan; alegia, testuaren hasierako eta amaierako paragrafoetan.

5. Erreferentzia-mekanismoak

Prosa juridikoan, berebiziko garrantzia du zehaztasunak; premiazkoa da hari solterik ez uztea. Ez da beti erraz lortzen, zeren eta esparru juridikoko testuek kontzeptu eta izen ugari biltzen baitute. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da une oro argi uztea testuko zein elementu aipatzen ari garen; bereziki, jada azaldutako elementu bat berriro aipatu nahi dugunean (alegia, irakurlearentzako «errekuperatzen» dugunean).

Zeregin horri erreferentziak gordetzea deritzo. Erreferentziak gordetzeko ditugun baliabideak egoki erabiliz gero, berrirakurketa desatseginak saihestuko ditugu, baita edukiaren interpretazio ezberdinak ere.



Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko Erabakia ez dator bat, hain zuzen ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan jasotzen den araudi-eskakizunarekin. Izan ere, **honek** ezarritakoari jarraikiz, lege-aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu ordezkagarrienen iritzia ezagutzeko.

[honek = Erabakiak? Legearen artikulua? Araudi eskakizunak?]



Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko Erabakia ez dator bat, hain zuzen ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan jasotzen den araudi-eskakizunarekin. Izan ere, **artikulu horrek** ezarritakoari jarraikiz, lege-aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu ordezkagarrienen iritzia ezagutzeko.

5.1. Erakusleak erreferentzia mekanismoak dira

Erreferentzia-tresnek funtzio anaforikoa dute; alegia, testuan jada azaldutako elementu bati egiten diote erreferentzia. Ezinbesteko mekanismoak dira testuaren zehaztasunerako, argi uzten baitute une oro zein elementu aipatzen ari garen.

Zenbaitetan, testuinguruak berak argi uzten du zein elementu errekuperatu nahi dugun; horrelakoetan, elipsiak egokiak izan daitezke.



Kontratua legez ezarritako gehieneko muga edo konbentzioz ezarritako muga baino laburragoa bada, [Ø] luzatu ahal izango da bi aldeek hala erabakitzen badute, behin baino ez. Dena den, [Ø] ezin izango du gehieneko muga baino gehiago iraun.

[Ø = kontratua(k)]

Euskaraz, gehienbat erakusleak erabili ohi ditugu testuan jada azaldutako elementuak errekuperatzeko. Horrela izanik, kontuan hartu behar dugu erakusle maila bakoitzak erreferentzia-funtzio berezitua duela hizkera formalean.

- Lehen mailako erakusleak: *hau* eta eratorriak
- Bigarren mailako erakusleak: *hori* eta eratorriak
- Hirugarren mailako erakusleak: *hura* eta eratorriak

5.2. Erakusleen erabilera

5.2.1. Lehen mailako erakusleak (*hau*, *hauek*, *hauetan* eta eratorriak)

Funtzio kataforikoa dute, alegia, ondoren datorren elementu bati egiten diote erreferentzia (esaterako, zerrenden sarrera esaldietakoek).



Deialdiaren urtean eskaini nahi den zerbitzu juridikoaren memoria zehatza, honako **hauek** jasota: zein diren haren ardura hartuko duten langileak, zenbat ordu jardungo duten eta jardueraren deskribapena.

5.2.2. Bigarren mailako erakusleak (*hori, horrek, horiek, horretan eta eratorriak*)

Erreferentea esaldi edo perpaus osoa denean erabiltzen dira.



Egintza ezarri zenetik **hura** berrikusi arte epe luzea igaro den arren, ezin da esan **horrek** interesdunari legezko konfiantza sortzen dionik bere legezkoatasunaren gainean. [**horrek = egintza berrikusteko epe luzea igaro izanak**].

5.2.3. Hirugarren mailako erakusleak (*hura, hark, hartan eta eratorriak*)

Erreferentea izen-sintagma zehatz bat denean erabiltzen dira.

Aurrekari bat baino gehiago dagoenean ere sistema bera erabiltzen da.



- Egintza ezarri zenetik **hura** berrikusi arte epe luzea igaro den arren, ezin da esan **horrek** interesdunari legezko konfiantza sortzen dionik egintzaren legezkoatasunaren gainean. [**hura = egintza**]
- Bileran zenbait proposamen jaso zirenez, **idazkariari** txostena berregiteko esan zioten, eta **hark** guztioki bidali digu txostenaren azken bertsioa. [**hark = idazkariak**]

5.3. Hautismoa edo hauzaleria

Sarritan, hautismora edo hauzaleriara jo ohi da. Hau da, lehen mailako erakusleak erabiltzen dira aurrez aipatutako elementu bati erreferentzia egiteko.

Baina, kontuz, lehen mailako erakusleak ondoren datorren elementu bati erreferentzia egiteko erabiltzen dira. Bigarren eta hirugarren mailako erakusleek, berriz, aurrez aipatutako elementu bati egiten diote erreferentzia.



Egintza ezarri zenetik **hau** berrikusi arte epe luzea igaro den arren, ezin da esan **honek** interesdunari legezko konfiantza sortzen dionik egintzaren legezkoatasunaren gainean.

[**honek = Erabakiak? Legearen artikulua? Araudi eskakizunak?**]



Egintza ezarri zenetik **hura** berrikusi arte epe luzea igaro den arren, ezin da esan **horrek** interesdunari legezko konfiantza sortzen dionik egintzaren legezkoatasunaren gainean.

5.4. Erakusle hutsa ez da beti nahiko adierazgarria

Zenbait kasutan, ez da argi geratzen zeri egin nahi diogun erreferentzia: batzuetan, erreferentea urrunegi dago, eta, beste batzuetan, elementu ugari daude. Halakoetan, edukia ondo ulertzeko, ez da nahikoa erakusle soila eskaintzea; egokiena da *izen+erakusle* formako izen-sintagmak erabiltzea.



Lanbideri sinetsarazi nahi izan dio adierazitako helbidean bizi izan dela, 2017ko urritik 2018ko apirilera arteko faktura faltsu bat aurkeztu baitio. Baina lanbide egiaztatu du, erroldako datuak erkatuz, ez dela inoiz ere bizi izan adierazi duen helbidean. **Horrek** DSBE/EPO-aren dirulaguntzak eskuratzeko betekizunei eragiten die.



Lanbideri sinetsarazi nahi izan dio adierazitako helbidean bizi izan dela, 2017ko urritik 2018ko apirilera arteko faktura faltsu bat aurkeztu baitio. Baina lanbide egiaztatu du, erroldako datuak erkatuz, ez dela inoiz ere bizi izan adierazi duen helbidean. **Baldintza horrek** DSBE/EPO-aren dirulaguntzak eskuratzeko betekizunei eragiten die.

Egitura anaforikoaren baliokide izan daitezke honako hauek ere: *aipatu(tako) baldintzak*, *azaldutako baldintzak*.

5.5. Beste bi modu elementuak errekuperatzeko

5.5.1. Elementuak errepikatzea

Testuan jada azaldu den elementu bat aipatzeko modu zehatzena berriro aipatzea da; hau da, errepikatzea. Horrek irakurketa astundu eta oztopatu dezake zenbaitetan, baina interpretazio oker oro saihesten du.



Segurtasun-neurriak bete behar dituzten enpresa hornitzaileek beren gain hartzen dute erantzukizuna, batetik, EJEra bidaltzen dituzten langileei **segurtasun-neurrien** berri emateko, eta, bestetik, langileek **segurtasun-neurriak** errespetatzeko hartzen duten konpromisoa idatziz jasotzeko.

5.5.2. Sinonimoak erabiltzea

Sinonimoak ere erabiltzen dira sarri. Autore batzuen esanetan, beti termino bera erabiltzea ez da oso estetikoa, eta, horregatik, hainbat sinonimo

konbinatzen dituzte testu batean kontzeptu bera izendatzeko. Autore horiek ahaztu egiten dute sinonimoak erabiltzea baliabide baliotsua dela literaturan, baina administrazioko testuetan komunikazioa oztokatzen duela, batez ere bi kasu hauetan:

- Hitz biek esanahi bera ez dutenean.
- Hartzaileari begiratuta, sinonimoaren erregistroa desegokia denean.

Beraz, sinonimoak erabiltzea erabakitzen badugu, kontuz jokatu behar dugu: hitz bat beste batekin ordezkatu aurretik, ziurtatu behar dugu aldaketak ez duela arazo semantikorik edo erabilera-arazorik sortzen.

- Adibide honetan, sinonimoek ez dute esanahi bera:



Segurtasun-neurriak bete behar dituzten enpresa hornitzaileek beren gain hartzen dute erantzukizuna, batetik, EJI Era bidaltzen dituzten langileei **segurtasun-politiken** berri emateko, eta, bestetik, langileek **politika horiek** errespetatzeko hartzen duten konpromisoa idatziz jasotzeko.

[*Segurtasun-neurriak ez errepikatzeko, segurtasun-politikak jarri da; eta neurriei berriz erreferentzia egiteko, politika horiek*]

- Beste honetan, erabilitako sinonimoa desegokia da, esaterako, hartzailea herritarra denean:



Ebazpenaren aurreko paragrafoetan **ezarritakoa** gorabehera, Prozedura Zibilararen Legearen 763.4 artikulua **xedatzen** du medikuek uste dutenean ez dela beharrezkoa erotxean egoteari eustea, gaixoari alta emango diotela eta auzitegi eskudunari berehala jakinaraziko diotela.



Ebazpenaren aurreko paragrafoetan **ezarritakoa** gorabehera, Prozedura Zibilararen Legearen 763.4 artikulua **agintzen** du medikuek uste dutenean ez dela beharrezkoa erotxean egoteari eustea, gaixoari alta emango diotela eta auzitegi eskudunari berehala jakinaraziko diotela.

[*Okertzat eman dugun esaldiaren hartzailea abokatua izanez gero, egokiak lirateke nabarmendutako sinonimoak*]



Laburbilduz

Aipatutako elementuari erreferentzia egiteko:

- Elementua behin eta berriz errepikatzen badugu, testu zehatzak baina astunak sortuko ditugu.
- Elementua ordezkatzeko erakusle soila edo elipsia erabiltzen badugu, testu arinagoak sortuko ditugu, baina, agian, orokorregiak.

Beraz, oreka bilatu behar dugu. Aukera bat da sinonimoak era egokian erabiltzea, eta beste bat da *izen+erakusle* egitura, aukera oso funtzionala:



Segurtasun-neurriak bete behar dituzten enpresa hornitzaileek beren gain hartzen dute erantzukizuna, batetik, EJI Era bidaltzen dituzten langileei **neurri horien** berri emateko, eta, bestetik, langileek **aipatutako neurriak** errespetatzeko hartzen duten konpromisoa idatziz jasotzeko.

6. Aditz perifrastikoen orde, aditz esanguratsuak

Hizkera juridikoa perifrasi hutsez josia dago, eta egiturek testuak luzatzen dituzte inolako beharrik gabe.

Perifrasiak gramatika aldetik zuzenak badira ere, testu juridikoetan saihestu edo neurritz erabili behar dira lengoia zehatzago baten alde egiteko.



Koordinazio-protokolo bat dago euskal erkidegoko erakundeen artean, eta ospitalea bera arduratuko da epaitegiari **abisu emateaz**.

Existe un protocolo de coordinación entre las instituciones vascas y será el propio hospital el que se encargará de **dar aviso** al juzgado.



Koordinazio-protokolo bat dago euskal erkidegoko erakundeen artean, eta ospitalea bera arduratuko da epaitegiari **abisatzeaz**.

6.1. Perifrasiak

Gaztelaniaz, joera dago ekintzak aditz perifrasi bidez azaltzeko, eta, forma horiek euskarara itzultzean, akatsak egiten ditugu maiz.

Perifrasietako batzuk inolako arazorik gabe euskaratzen ditugu, baina gure hizkuntzak baditu gauza bera esateko adierazpide jatorragoak ere.

Oro har, arlo juridikoan kosta egiten da lengoia argi eta arrunta erabiltzea. Kasurik gehienetan, bi hitzetan azal daitekeena bost hitzetan esatea aukeratzen da, hitz asko eta zailak erabiltzeak testuari maila jasoagoa ematen diolakoan edo.

Hona hemen gaztelaniatik itzultzen ditugun esaldi batzuetarako proposamena:



- Egile jakinik gabe biltegian artxibatuta dauden frogen kasuan, une horretan indarrean dagoen prozedura erabiliko da, haren **suntsipena gauzatzeko**, behin delitua preskribatu denean.
- Nahitaezkoa izango da **garbiketa burutzea** erabiltzaileak sartu baino lehen.
- **Eskola-kiroloaren plangintza egitean**, osasun-helburuak txertatzea etapa bakoitzean.
- Itsasontzi-jokoaren bidez, kanal elektronikoaren **erabilera gauzatu** ahalko duzu etorkizunean, Administrazio honekin eduki ditzakezun harreman elektronikoetan.



- Egile jakinik gabe biltegian artxibatuta dauden frogen kasuan, une horretan indarrean dagoen prozedura erabiliko da, eta delitua preskribatzen denean **suntsituko** dira.
- Nahitaezkoa izango da **garbitzea** erabiltzaileak sartu baino lehen.
- **Eskola-kirola planifikatzean**, osasun-helburuak txertatzea etapa bakoitzean.
- Itsasontzi-jokoaren bidez, kanal elektronikoa **erabili** ahalko duzu etorkizunean, Administrazio honekin eduki ditzakezun harreman elektronikoetan.

Kontuan hartu

Lan bat berridatzi edo editatu aurretik, lagungarria da aditz guztiak azpimarratzea. Azpimarratutakoak *burutu*, *gauzatu*, *ekin*, *egin* edo antzeko hitzez lagunduta badoaz, saiatu aditz indartsuago batekin ordezkaten. Aditz esanguratsuak erabilia, aditz ahulak indartzeko erabilitako hitzak baztertu ahal izango ditugu.

Aditz zehatz eta indartsuagoen bila ematen dugun denbora guztia ongi inbertitutakoa izango da.

6.1.1. «Joan» aditzaren kalkozko erabilera

Joan aditzaren perifrasiak sortzen dira batzuetan gaztelaniaren eraginez. Bestela eman daitezke euskara egokiago batean.



- Egileok beste pauso bat eman nahi izan dugu Justizia Administrazioan euskarak izan beharko lukeen zabaltze-bidean. Hala ere, ezinbestekoa da eragile juridiko ororen parte-hartzea. Guztion artean **goazen eratzera** mundu juridikoan euskara erabiltzeko esparru egokia.
- Kontuan izanik III. Plangintzaldiaren amaieran gaudela eta 2008ko urtarrilaren 1ean hasiko dela IV. Plangintzaldia, **aurkeztera goazen** hau III. Plangintzaldiaren balorazio txostenaren aurrerapena izango da.



- Egileok beste pauso bat eman nahi izan dugu Justizia Administrazioan euskarak izan beharko lukeen zabaltze-bidean. Hala ere, ezinbestekoa da eragile juridiko ororen parte-hartzea. Guztion artean **era dezagun** mundu juridikoan euskara erabiltzeko esparru egokia.
- Kontuan izanik III. Plangintzaldiaren amaieran gaudela eta 2008ko urtarrilaren 1ean hasiko dela IV. Plangintzaldia, **aurkeztuko dugun** hau III. Plangintzaldiaren balorazio txostenaren aurrerapena izango da.



Laburbilduz

Esaldi argiak osatzeko modurik egokiena ekintzak aditz esanguratsuen bidez ematea da, eta ez aditz ahulez lagunduriko izenekin osatutako perifrasiak erabiltzea. Hortaz, atera ekintza izenetik, eta jar ezazu aditzean (*baldintzen azterketa burutu > baldintzak aztertu*). Era horretan, esaldi laburragoak eraikiko dituzu, eta zure idazkiak dinamikoago eta adierazkorragoak izango dira.

7. Ezabatu alferrikako esapideak

Testu juridikoetan, zenbait esapide etengabe erabiltzen dira. Horietako batzuk informaziorik galdu gabe ken daitezke. Esapide horiek egokituz gero, asko hobetu dezakegu komunikazioa.



Azken batean, Administrazioak eskaerari buruzko txosten idatzia aurkeztu behar dio epaileari; eta txosten hori aldaketa **edo proposamena**ren aldekoa bada eta, alegazioei **dagokienez**, gainerako alderdiek aurkakorik aurkezten ez badute, epaileak aldaketa egitea erabaki **edo ebatziko** du auto bidez.



Administrazioak eskaerari buruzko txosten idatzia aurkeztu behar dio epaileari; eta txosten hori **aldaketa**ren aldekoa bada, eta gainerako alderdiek **aurkako alegaziorik aurkezten ez badute**, epaileak aldaketa egitea **erabakiko** du auto bidez.



Agerian dagoenez, prozesu horrek proiektuen kalitatea bermatzen du, eta, beraz, zerbitzua hobetzeko **bidean**, indartu beharrezkotzat jotzen dute arduradun gehienek.



Prozesu horrek proiektuen kalitatea **bermatzen duenez**, zerbitzua **hobetzeko**, indartu beharrezkotzat jotzen dute arduradun gehienek.

7.1. Ezabatzeko esapideak

Herritar gehienei arrotz egiten zaizkie testu juridikoak; kritikoek diotenez, bertan erabiltzen den idazkera-estilo nahasiagatik, batik bat.

Izan ere, labur adieraz daitekeena luzatzeko joera handia dago testu juridikoetan; baita erraz adieraz daitekeena korapilatzea ere. Joera horiek idazkera-ohiturekin estu lotuta daude.

Hizkera argira hurbildu nahi badugu, ohitura horietako batzuk baztertu behar ditugu, eta, esaterako, beharrezkoak ez diren adierazpideak ezabatu.

7.2. Bikote lexikoak

Esanahi bereko hitz bi elkarren ondoan jartzen ditugu sarri: *arrazoiak edo azalpenak, baldintzak edo betekizunak, bideak edo tresnak, prozedurak edo metodoak, argia edo zehatza, (saio) baliogabea edo nulua* eta abar.

Alabaina, argiagoa da hitz bakarra aukeratzea. Bi termino jartzeak ekonomia linguistikoa haustea eta testuak luzatzea dakar, nahiz eta azalpen zehatzagoak eskaintzeko asmoz jartzen ditugun. Horrez gain, atentzioa desbideratzea ere eragiten du.

Erreparatu adibideari: irakurleak arreta izenean jarri ordez, adjektiboetan jartzeko arrisku handia dago.



Auzitegiak aditua izendatuko du, baldin eta eskatutako aditu-irizpena **egokia edo aproposa** dela uste badu.



Auzitegiak aditua izendatuko du, baldin eta eskatutako aditu-irizpena **egokia** dela uste badu.

7.3. Makulu-hitz eta -esapideak

Sarritan, testuaren esanahian eragiten ez duten egitura sintaktikoak gehitzen ditugu balio espresiboa eransten dutelakoan. Eremu juridikoan, gehienetan, gaztelaniaz erabiltzen diren klixteen kalkoak izaten dira, tradizioak guganaino ekarri dituenak.

Egitura horiek saihestuz gero, edukia askoz ere errazago ulertuko da.

- ... aurreko guztiarekin bat etorri (...)
- ... lortzeko bidean (...)
- ... finean (...)
- ... agerikoa da (...), agerian dago (...)
- ... komeni bada (...)
- ... azken batean (...)
- ... egia esan (...)



Enplegua Aktibatze Programan berriz sartzeko aukera programa amaitu arte geratzen den aldira mugatuta dagoenez, **agerikoa da** neurria presaz aplikatu behar dela.



Enplegua Aktibatze Programan berriz sartzeko aukera programa amaitu arte geratzen den aldira mugatuta dagoenez, neurria presaz aplikatu behar da.



Egia esan, legeria oparoa izan da, prozesuan sortu diren ezusteko gertaera guztiei oso azkar erantzun baitie.



Legeria oparoa izan da, prozesuan sortu diren ezusteko gertaera guztiei oso azkar erantzun baitie.

Ohiko esapide hauek ere baztertzeak dira: *–ri dagokionez* eta *–ren kasuan*.



Azterlanaren emaitzei **dagokienez**, Udal Osoko Bilkurak erabaki du urtarrilerako jasota egon behar direla.



Udal Osoko Bilkurak erabaki du azterlanaren emaitzak urtarrilerako jasota egon behar direla.

Aipatutakoez gain, gaztelaniazko testu juridikoetan badira zenbait formula beharrianik gabe euskaratzen ditugunak. Hona hemen adibide bat:



Mantentze-lana kontratistaren **pentsutan egongo** da / **kontura izango** da.

El coste del mantenimiento será a cargo /a costa de la persona contratista.



Kontratistak ordaindu beharko du mantentze-lana.

8. Ohiko esapide desegoki batzuk

Elhuyarren *Euskal Hiztegi Modernoan*, *formulismoari* buruzko bi definizio hauek topatu ditugu:

- Arazo bat erabaki edo burutzerakoan, formulekiko gehiegizko joera, bereziki, arazo ofizial edo burokratikoetan.
- Gauzen itxurari, eta ez esentziari, lehentasuna emateko joera.

Formulismoak ezinbestekoak izan daitezke testuinguru jakin batzuetan, baina, testu juridiko argiak idatzi nahi baditugu, komeni da formulismo ulergaitzak baztertu eta adierazpide ulergarriak erabiltzea.



HIRUGARRENA. Emandako laguntzaren % 70 —hau da, 25.845 euro— aldeztatik ordain dadila agintzea, 2017ko uztailaren 26ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritako**ekin bat eginez**.

TERCERO. Ordenar el pago por anticipado del 70 % —esto es, 25.845 euros— de la ayuda concedida, **de conformidad con** lo dispuesto en el artículo 15 de la Orden de 26 de julio de 2017.



HIRUGARRENA. Emandako laguntzaren % 70 —hau da, 25.845 euro— aldeztatik ordain dadila agintzea, 2017ko uztailaren 26ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritako**aren arabera**.

Zuzenbideak pertsona guztientzat izan behar du ulergarria, guztion eskubideak eta betebeharrak zehazten baititu. Hala ere, testu juridikoetako zenbait formula ulertzeko zailak dira.

Ulergarritasuna bermatzeko, ahalik eta esapide egokienak baliatu behar ditugu.

8.1. Erdal formulak

Gaztelaniazko testu juridikoetan, irakurketa oztopatzen duten zenbait formula finko erabiltzen ditugu, nahiz eta ez duten aparteko zehaztasunik ematen. Eta euskaraz, gaztelaniazko horiek kalkatzera jotzen dugu sarritan.



A causa de ≠ -(r)en kausaz
 A condición de ≠ -(r)en baldintzapean
 A efectos de ≠ -(r)en ondorioetarako
 A petición de ≠ -(r)en eskariz
 A instancia de ≠ -(r)en eskariz
 Con el objetivo de ≠ -(r)en helburuarekin
 Con motivo de ≠ -(r)en kariaz
 De conformidad con ≠ -(r)ekin bat egin
 En base a ≠ -n oinarrituz
 En caso de ≠ -(r)en kasuan
 En el supuesto de ≠ -(r)en suposamenduan
 Por razón de ≠ -(r)en arrazoiengatik
 Sin perjuicio de ≠ -(r)en kaltetan gabe



-(r)en ondorioz
 (baldin) ba
 -(z)eko
 hala eskatzen badu, -k eskatuta
 hala eskatzen badu, -k eskatuta
 -(z)eko
 dela eta
 -ren arabera, -(r)i jarraikiz
 oinarri hartuta
 (baldin) ba, -z gero
 (baldin) ba, -z gero
 -gatik, bait, -lako
 eragotzi/baztertu gabe, horrek ez du esan nahi, aurrekoa gora behera

Hobe dugu formulak egokitzea:



Hartzailea eta gainerako okupatzaileak identifikatze**aren ondorioetarako** (...)
A efectos de proceder a la identificación del receptor y demás ocupantes (...)



Hartzailea eta gainerako okupatzaileak identifikatze**ko** (...)



Epaileak baimena eman dezake konfiskatutako ondasunak erabiltzeko, Fiskaltz**aren eskariz**.
 El juez podrá autorizar la utilización de los bienes embargados a instancia del Ministerio Fiscal.



Epaileak baimena eman dezake konfiskatutako ondasunak erabiltzeko, Fiskaltzak **hala eskatzen badu**.

8.2. Arkaismoak

Termino anakronikoak dira arkaismoak; ez teknikoak, eta egungo hizkuntzan erabiltzea ez da oso egokia.

Arkaismoak erabiltzea argitasun eta zehaztasun printzipioen kontra doa; hala ere, zaharkitutako esapide horiek erabili ohi dira testu juridikoetan, oraindik ere.



Igor bekio Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Elévese al Consejo de Gobierno.



Bidali Jaurlaritzaren Kontseiluari.

8.3. Latinismoak

Latinezko lokuzio batzuek zehaztasun handiz adierazten dituzte Zuzenbidearen printzipio orokorrak. Dena dela, neurritz erabiltzea komeni da; izan ere, herritar gehienentzat ezezagunak dira. Euskaltzaindiak oraindik ez du erabaki nola idatzi behar diren, baina guk etzanez idaztearen alde egiten dugu.

Bestalde, ohikoa da latinismoak txarto idaztea. Hona hemen adibide batzuk:



a grosso modo
contra natura
de ipso facto
(de) motu proprio
mutatis mutandi
stricto sensu, stricto senso



grosso modo
contra naturam
ipso facto
motu proprio
mutatis mutandis
stricto sensu

9. Informazio garrantzitsuen ahalik eta lasterren

Testu, paragrafo zein esaldietan, elementu garrantzitsuenak ahalik eta lasterren jarriko ditugu, testuaren edukia errazago uler dadin.

Euskaraz, hurrenkera ez komunikatiborako joera nabarmena da; izan ere, oso errotuta dago aditza (informazio esanguratsua duen elementua) esaldiaren amaieran jartzeko ohitura; bai testu juridiko-administratiboetan, bai testugintzan, oro har.



Erakustaldi publikoko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, zerrendaren erakustaldi publikoaren aurkako birjartze-errekurtsoa **jarri ahal izango da**. Zerrendak kobrantza-iragarkiaren zeregina ere beteko du. Ordaintzeko lekuak herritarrentzako arreta-bulegoak, pagamenduko dokumentuan ageri diren entitate kolaboratzaileak eta udalaren webgunea **dira**.



Zerrendaren erakustaldi publikoaren aurkako birjartze-errekurtsoa **jarri ahal izango da**, erakustaldi publikoko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean. Zerrendak kobrantza-iragarkiaren zeregina ere beteko du. Ordaintzeko lekuak **honako hauek dira**: herritarrentzako arreta-bulegoak, pagamenduko dokumentuan ageri diren entitate kolaboratzaileak eta udalaren webgunea.

9.1. Esaldian, garrantzitsuena hasieran

Irakurleek esaldietako lehen hitzak barneratzen dituzte ondoen; horregatik, komeni da honako aholku hauei kasu egitea:

9.1.1. Perpausen hurrenkera: nagusia mendekoaren aurretik

Perpaus nagusiarekin hasitako esaldiak irakurterrazagoak dira: hasieratik bertatik aurkezten dugu gai nagusia, eta hobeto ulertzen dira ondorengo elementuak. Aldiz, mendeko perpausa aurrean jarriz gero, irakurlea ez da esaldiaren eduki osoaz jabetuko harik eta esaldi osoa irakurri arte.



Nahiz eta epeak igaro ondoren jaso, **legezko epeak igaro aurretik adostutako ikerketa-eginbideak baliozkoak izango dira.**



Legezko epeak igaro aurretik adostutako ikerketa-eginbideak baliozkoak izango dira, nahiz eta epeak igaro ondoren jaso.

9.1.2. Salbuespena: baldintzazko perpausak

Egokiagoa da baldintza aurretik jartzea; bereziki, ondorio bat baino gehiago agertzen denean.



Zehapenaren zenbatekoa % 50 murriztuko da, alegazioak egiteari uko egingo zaio, eta zehapen-prozedura bukatutzat joko da, **isuna hamabost egun naturaleko epearen barruan ordaintzen bada.**



Isuna hamabost egun naturaleko epearen barruan ordaintzen bada, zehapenaren zenbatekoa % 50 murriztuko da, alegazioak egiteari uko egingo zaio, eta zehapen-prozedura bukatutzat joko da.

9.2. Aditza aurreratzeko aukera batzuk

Euskaraz, aditza da esaldiko elementurik garrantzitsua. Eta zenbaitek, oraindik ere, oso errotuta dauka aditza esaldiaren amaieran kokatu behar delako ideia. Esaldi laburretan ondo funtzionatzen du *subjektu-objektu-aditza* hurrenkerak. Baina, hizkera juridikoan, zehaztasuna izanik helburu, ohikoa da perpausak pilatzea esaldietan, eta, ondorioz, aditza atzerago jartzea.

Testu komunikatiboak sortu nahi baditugu, saiatu behar dugu aditza ahalik eta aurreren jartzen. Hona hemen horretarako gomendio batzuk:

9.2.1. Aditz deklaratiboak (*esan, adierazi, azaldu, ukatu, erabaki...*)

Esaldiaren aurrealdean kokatuz gero, esaldi komunikatiboagoak eratuko ditugu, nahiz eta luzeak izan. Egituratze horren bidez, deklinabide kasuak pilatzea saihestuko dugu, eta, horrela, esaldiak hobeto ulertuko dira.



- **Titularrak** bai terrazei buruzko udal arategia, bai eta baimena emateko baldintzak ez betetzeak ekar ditzakeen zehapenak ere ezagutzen dituela **adierazi du**, askatasun osoz eta bere erantzukizunpean.
- Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 13.2 **artikuluak lizentziak** edo **baimenak** izan ditzaketen pertsonak **zehazten ditu**.



- **Titularrak** askatasun osoz eta bere erantzukizunpean **adierazi du** ezagutzen dituela bai terrazei buruzko udal arategia, bai eta baimena emateko baldintzak ez betetzeak ekar ditzakeen zehapenak ere.
- Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 13.2 **artikuluak zehazten du** nork izan ditzakeen lizentziak edo baimenak.

9.2.2. Zenbait egitura aurrealdean jarri

Esaldi irakurterazagoak eratuco ditugu hauek bezalakoak aurreratzeko hutsarekin: *honenbestez, honen bidez, litekeena da, kontuan hartu...*



Europar Batasunaren Tratatuko 6. artikuluan Gutunaz egiten den aipamena ezin dela hartu estatu kideen ekintzaren irispidearen zabalkuntzatat **kontuan hartu**.



Kontuan hartu Europar Batasunaren Tratatuko 6. artikuluan Gutunaz egiten den aipamena ezin dela hartu estatu kideen ekintzaren irispidearen zabalkuntzatat.

9.2.3. Galdegaiordeak erabili

Galdegai funtzioa egin dezaketen elementuak erabiliz gero (*laster, beti, ongi, berriki, sarri, maiz, orduan, azkar, asko, hobe, askotan, inoiz*), berridatzitako esaldia gramatika aldetik ez da berdina izango, baina eduki aldetik hobeto ulertuko dute irakurleek.



Hortaz, urbanizazio proiektuan errepidetik eremura sartzeko loturarentzako xedatutako tipologia **aztertu eta definitu beharko da**.



Hortaz, urbanizazio proiektuan **egoki definitu beharko da** errepidetik eremura sartzeko loturarentzako xedatutako tipologia.

9.2.4. Kataforak: iragarri ondoren datorrena

Lehen mailako erakusleekin (*hau, hauek...*) osatutako egiturek ere ahalbidetzen dute aditza aurreratzeko eta, ondorioz, esaldi irakurterrazagoak idazteko aukera.



Ezarri beharreko zehapenaren zenbatekoa zehazteko, amaren edo sortutako aurre-enbrioien osasunerako arriskua, intenzionalitate-maila, osasunean edo gizartean sortutako alerazioaren larritasuna, arau-haustea orokortu den eta behin baino gehiagotan egin den **kontuan hartuko dira**.



Ezarri beharreko zehapenaren zenbatekoa zehazteko, **honako hauek kontuan hartuko dira**: amaren edo sortutako aurre-enbrioien osasunerako arriskua, intenzionalitate-maila, osasunean edo gizartean sortutako alerazioaren larritasuna, arau-haustea orokortu den eta behin baino gehiagotan egin den.

10. Gerundioen okerreko erabilera

Euskaraz ez dago inguruko hizkuntzen gerundioaren parekorik: beste baliabide batzuk erabiltzen ditugu horren ordez. Hala ere, inguruko hizkuntzen eraginez, baliabideok ez dira beti zuzen erabiltzen. Ondorioa: esaldi luze eta astunak sortzen ditugu, okerrak eta ulertzeko zailak.



Ebazpen honen aurka Mikel Azpitarte Badiola jaunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen, errekurto hori 2018ko maiatzaren 7ko Aginduaren bitartez ezetsi **zelarik**.



Ebazpen honen aurka Mikel Azpitarte Badiola jaunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen; **eta** errekurto hori 2018ko maiatzaren 7ko Aginduaren bitartez ezetsi **zen**.

10.1. Hautatu forma egokia

Gerundioa zehaztasun semantiko gutxiko marka da, eta gaztelania formalean asko erabiltzen da. Euskarak ez du gaztelaniatzko gerundioa adierazteko forma baliokiderik, eta itzultzean, hainbat modutara ematen dugu.

Gaztelaniaz, zenbaitetan, gaizki erabiltzen da gerundioa. Horrez gain, erdal gerundioaren ordain bakoitzak erabilera eremu bat dauka, eta ez dira denak elkarren baliokide. Ondorioz, askotan, okerreko forma hautatzen dugu gerundioak itzultzean.

Euskarak bide asko ditu erdarazko gerundioak egiteko, beraz, ez da komeni erdarazko gerundioa beti gerundioaren baliokideekin ordezkatzea. Bestalde,

komeni da gerundioaren ordezeko forma bera erabili beharrean (esaterako, *-larik, -z...*), beste forma batzuk erabiltzea.



Kontuan izanda estatuaren jabetzakoak diren zenbait ondasun higiezinakiko gozamen eskubidea sortu dela, besterenak diren ondasun batzuez gozatzeko eskubidea ematen **zaiolarik** Euskal Autonomia Erkidegoari, Kode Zibileko 467. artikulua araberera, 1536/1987 Errege Dekretuak xedatutakoari **jarraituz**.



Estatuaren jabetzakoak diren zenbait ondasun higiezinakiko gozamen eskubidea sortu da Euskal Autonomia Erkidegoaren alde. **Hortaz**, besterenak diren zenbait ondasunetarako gozatzeko eskubidea eman zaiio Euskal Autonomia Erkidegoari; betiere, Kode Zibileko 467. artikulua araberera eta 1536/1987 Errege Dekretuak **xedatutakoaren arabera**.

10.2. Gerundioaren erabilera okerrak testu juridikoetan

Testu juridikoetan honako erabilera oker hauek dira nabarmentzekoak:

10.2.1. Helburuzko gerundioa



Ahozko judizioaren irekiera autoa bidaltzen dizuet ebazpen honen aurka ez dagoela errekurtsorik jartzetik **jakinaraziz**, eta hamar eguneko epean abokatua eta prokuradorea izendatuko direla **ohartaraziz**.



Ahozko judizioaren irekiera autoa bidaltzen dizuet **jakinarazteko** ebazpen honen aurka ez dagoela errekurtsorik jartzetik, eta **ohartarazteko** hamar eguneko epean abokatua eta prokuradorea izendatuko direla.

10.2.2. Geroaldiko gerundioa



Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du deialdia egiten duen administrazioak, gutxienez zazpi egun naturalekoa izango den arrazoibideak aurkezteko epea **zabalduz**.



Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du deialdia egiten duen administrazioak eta arrazoibideak aurkezteko epea **zabalduko du**; epe hori, gutxienez, zazpi egun naturalekoa izango da.

10.2.3. Adjektibozko gerundioa (*BOEko gerundioa*)



Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia **arautuz**.



Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia **arautzeko**.

10.2.4. Esaldi juntatuen ordezkotako gerundioa



Deialdi hau eta dagozkion oinarri-arauak oso-osorik argitaratuko dira Bizkaiko Egunkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zehaztutako laburpen bat ere Estatuko Buletin Ofizialean argitaratuko **delarik**.



Deialdi hau eta dagozkion oinarri-arauak oso-osorik argitaratuko dira Bizkaiko Egunkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, **eta, gainera**, Estatuko Buletin Ofizialean argitaratuko da laburpen zehatz bat.



Laburbilduz

Gaztelaniazko gerundioaren baliokideak zuzen erabili arren, arriskutsuak dira: esaldiak behar baino gehiago luzatu, eta, ondorioz, testu ilunak sortzen ditugu. Beraz, kontuz gerundioarekin, testuak dotoretu beharrean, kontrako efektua sor dezake eta.

11. Kontuz erlatibozko egiturekin

Testu juridiko eta administratiboetan, erlatibozko egiturak erabiltzen dira sarri. Egiturek ulermena oztopa dezakete, batez ere esaldi luzeetan; izan ere, kasu-marka esaldiaren atzealdean jartzen da, eta, ondorioz, informazio garrantzitsua atzeratu egiten da.



Hori da erakunde ofizialek, Eusko Jaurlaritzak barne, Europako Kontseiluaren Errekerimenduaren arabera diseinatutako Prebentziorako eta Kudeaketarako 2010-2012 Planean garatu behar duten **helburu nagusia**.

Euskaraz baditugu hainbat bide ulermena oztopatzen duten egitura horiek saihestu eta esaldiak era ulergarriagoan aurkezteko.

Hona hemen zenbait aukera:

11.1. Esaldi ulerterrazagoak idazteko bideak

11.1.1. Erlatibozko beste egitura batzuk erabiltzea

zein..., non...: Izenordain egitura horiek erakusleen funtzio bera betetzen dute, baina beste modu batera lotzen dira.



Hori da helburu nagusia **zeina** erakunde ofizialek, Eusko Jaurlaritzak barne, garatu behar **baitute/duten** Europako Kontseiluaren Errekerimenduaren arabera diseinatutako Prebentziorako eta Kudeaketarako 2010-2012 Planean.

-na: Izenordain erlatiboen alternatiba egokia izan daiteke **-na**, erreferentea aurreratzeko aukera ematen baitu.



Hori da erakunde ofizialek, Eusko Jaurlaritzak barne, Europako Kontseiluaren Errekerimenduaren arabera diseinatutako Prebentziorako eta Kudeaketarako 2010-2012 Planean **garatu behar duten helburu nagusi bat**.



Hori da **helburu nagusi bat**, erakunde ofizialek, Eusko Jaurlaritzak barne, garatu behar **dutena** Europako Kontseiluaren Errekerimenduaren arabera diseinatutako Prebentziorako eta Kudeaketarako 2010-2012 Planean.

11.1.2. Erlatibozkoak ez diren bestelako egitura batzuk baliatzea

Esaldia zatitu



Helburu nagusi hori garatu behar dute erakunde ofizialek, Eusko Jaurlaritzak barne. Europako Kontseiluaren Errekerimenduaren arabera diseinatutako Prebentziorako eta Kudeaketarako 2010-2012 Planean garatuko dute.

Saihestu, behar ez direnean

Ez dago debekatuta erlatiboa erabiltzea, baina desagoki deritzogu behar ez denean eta sarriegi erabiltzeari.



Paperean jasotako agiriak eta agiri elektronikoak balioestekoak direla da **lege honek ziurtatzen duena**.



Paperean jasotako agiriak eta agiri elektronikoak balioestekoak direla **ziurtatzen du** lege honek.

Lege honek **ziurtatzen du** paperean jasotako agiriak eta agiri elektronikoak balioestekoak direla.

11.2. Ordezkatzeko formak

Honako erlatibozko hauek ordezkatzea komeni da:

Galdegaia markatzeko erlatibozko itzuliak



Hura izan da errekerimendua bidali duena.



Hark bidali du errekerimendua.

Galderetako erlatiboak



Zein da indarrean **dagoen** legea?



Zein lege dago indarrean?

Izenondoetakoak (izenaren eskuinean ezartzen diren adjektiboak)



Udal txikiak direnek ez dute baliabiderik plan horiek aurrera eramateko.



Udal txikiak ez dute baliabiderik plan horiek aurrera eramateko.



Laburbilduz

Erlatibozko egitura batzuek ulermena oztopatzen dute, informazio garrantzitsua atzeratu egiten baita kasu-marka esaldiaren atzealdean jartzean.

12. Esaldi aktiboak, naturalagoak

Esaldi aktiboak dira *nor* eta *zer* argi uzten dituztenak. Esaldi pasiboek baino izaera naturalagoa dute, eta, ondorioz, adierazkorragoak eta zehatzagoak dira.

Estilo pasiboa



Postua hutsik badago karguduna kanpoan edo gaixorik dagoelako, edo legezko beste arrazoiren bategatik, **ordezkatua izango da** Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzako Koordinazio Ekonomikorako **zuzendariordearen aldetik**.

Estilo aktiboa



Postua hutsik badago karguduna kanpoan edo gaixorik dagoelako, edo legezko beste arrazoiren bategatik, Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzako Koordinazio Ekonomikorako **zuzendariordeak ordeztuko du**.

Testu juridiko argiak sortze aldera, egitura aktiboak lehenetsiko ditugu. Hala ere, zenbait kasutan, egitura pasiboak tartekatzea egokia izan daiteke. Hortaz, neurritz eta helburu jakin batekin erabiltzea da kontua.

12.1. Esaldi aktiboak eta pasiboak

Hizkera juridikoan, sarritan erabiltzen ditugu esaldi pasiboak hiru helburu hauek lortu nahian:

- **Zehaztasuna:** Ekintza baten egilea lehenetsi beharrean, pentsa dezakegu ekintza bera nabarmenduz gero xehetasun gehiago ematen dugula.
- **Zuhurtzia:** Esaldi pasiboetan erraz asko utz daiteke ekintzaren egilea aipatu gabe, eta, ondorioz, inork ez du ekintzari loturiko erantzukizuna bere gain hartzen.
- **Formaltasuna:** Jende askok esaldi pasiboak hizkera jasoarekin lotzen ditu haien egituragatik.

Zenbait kasutan egokiak izan daitezke egitura pasiboak; testuaren monotonia hausteko, adibidez. Ekintzaren egilea nor den ezkutatzeko ere balio dute, beti ez baita posible edo komenigarri egilea nor den esatea. Dena den, inolako beharrik gabe baliatzen dugu askotan, esaldi aktiboak naturalagoak eta ulertzeko argiagoak direla ahaztuta.

Egitura pasiboak neurritz eta testuak hala eskatzen duenean soilik erabili beharko genituzke, hizkera juridikoak behar duen argitasuna eta zehaztasuna galtzea baitakarte maiz.

12.2. Subjektua zehazteko arazoak

Estilo pasiboak asko zailtzen du ekintzaren egilea (*nor*, subjektua) zehaztea. Adibidez, irakurleak zalantza ugari izan ditzake esaldi hauek irakurtzean:



Merkataritzako Erregistroan ziurtagiri batzuk ematen zaizkio foru-ogasunari, zerga-kudeaketa modu elektronikoan egin ahal izateko bete beharreko izapideak arinagoak izan daitezen pertsona juridikoen aldetik.

[* **Nork** ematen ditu ziurtagiriak? **Nork** kudeatzen ditu izapide elektronikoak, pertsona juridikoek ala foru-ogasunak? Eta **nork** bete behar ditu izapideak, pertsona juridikoek ala foru-ogasunak?]



Herritarrentzako informazioa ematerakoan aginduan ezarritakoa beteko ez balitz langileen aldetik, Ogasuna eta Ekonomia Sailean erabilera horretatik eratorritako erantzukizunak sorraraziko lirateke.

[* **Nork** ematen du informazioa, herritarrek ala langileek? **Nork** bete behar du aginduan ezarritakoa, herritarrek ala langileek? **Zer esan nahi du** zehazki sorraraziko liratekeela? **Nork** sorraraziko lituzke?]

Estilo aktiboa erabiliz gero, argi geratzen dira ekintzak zein egileak; esaldia ondo ulertzeko, irakurleak ez du asmakizunetan denbora galtzen ibili beharrik.



Erregistroak ziurtagiri batzuk ematen dizkio foru-ogasunari, zerga-kudeaketa modu elektronikoan egin nahi duten **pertsona juridikoek** bete beharreko izapideak arintzeko.



Langileek herritarrentzako informazioa ematerakoan aginduan ezarritakoa beteko ez balute, **Ogasuna eta Ekonomia Sailak** erabilera horretatik eratorritako erantzukizunak eskatuko lizkieke.

12.3. Gaztelaniaz «por» preposizioaren bidez adierazten ditugunak

Gaztelaniaren agentea adierazteko *por* preposizioaren euskal ordaina ematean, hutsegiteak egiten ditugu batzuetan.



«El plan general fue aprobado por la Mancomunidad» esaldia euskaratzeko, baztertzekoak dira honako egitura hauek:

- Plangintza orokorraren helburuak Mankomunitate**agandik onartuak** izan ziren.
- Plangintza orokorraren helburuak Mankomunitate**tik onartuak** izan ziren.
- Plangintza orokorraren helburuak Mankomunitate**agatik onartuak** izan ziren.

Azken esaldiaren egitura (*-gatik*) okerra da agentea adierazteko, baina onargarria litzateke kausa adierazteko (Mankomunitatearen «onerako» onartu ziren plangintza orokorraren helburuak). Edonola ere, kasu horretan ez legoke argi nork onartu zituen helburuak.

Zalantzarik gabe, argiena esaldi aktiboa da.



Mankomunitate**ak** plangintza orokorraren helburuak **onartu zituen**.



Laburbilduz

Saiatu egitura pasiboak ahalik eta gutxien erabiltzen. Egitura aktiboek izaera naturalagoa izateaz gain, ekintzaren arduraduna agerian uzten dute.

13. Baztertu kalko okerrak

Gaur egun, euskaraz idatzitako testu juridiko gehienak itzulpenak dira. Euskara juridikoa gaztelanian oinarritzen da neurri handi batean, eta horrek kalkoaren arriskua areagotzen du.

Kalkatzea da hizkuntza batek beste baten hitzak, esamoldeak edo egitura sintaktikoak imitatzea. Berez, kalkoek izugarrizko eragina daukate hizkuntza baten garapen lexikoan, baina, askotan, imitazio horiek premiarik gabe eta modu desegokian egiten dira: kalko okerrak dira.



Lege honek helburu **konkretu** bat dauka, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako politikak bilduko dituen esparrua arautzea. Izan ere, esparru hau baztertzeak izugarri **kaltetu du ekonomia**. Egun, **baldintzak ematen dira** arazo hori konpontzeko, eta, horrekin batera, lanbide-heziketa **indartzen den heinean** Euskadi **baldintza onetan kokatzen joateko** Europak helburu duen eredu ekonomikoan.



Lege honek helburu **jakin** bat dauka, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako politikak bilduko dituen esparrua arautzea. Izan ere, esparru hau baztertzeak izugarrizko **kaltea egin dio ekonomiari**. Egun, **egoera egokia da** arazo hori konpontzeko, eta, horrekin batera, lanbide-heziketa **indartu ahala** Euskadi **leku egokian kokatzeko** Europak helburu duen eredu ekonomikoan.



Helburu hori **lortzeko asmoz**, prestakuntzarako dirulaguntzak **biderkatu** eta enplegurako programa bereziak sortuko dira. Programa horietara **aurkez litezkeen** ikasleek eskubidea izango dute gutxieneko soldata kobratzeko.



Helburu hori **lortzeko**, prestakuntzarako dirulaguntzak **izugarri handitu** eta enplegurako programa bereziak sortuko dira. Programa horietara **aurkezten diren** ikasleek eskubidea izango dute gutxieneko soldata kobratzeko.

13.1. Euskarazko egiturak hobetsi

Kalkoek kalte egin diezaiokete hizkuntzari, arriskua baitago euskaraz egoki erabili daitezkeen egiturak baztertu eta denborarekin galtzeko. Gaztelania eta euskara egituraz oso desberdinak dira, eta ideiak adierazteko moduak ere desberdina izan beharko luke.

Hona hemen adibide batzuk:

Batzarra ospatu



Administratzaileek batzar orokorra deitu beharko dute bi hilabeteko epean, eta edozein bazkidek batzarra **ospatu** dadila eskatu ahal izango die administratzaileei entitatea desegiteko arrazoiak daudenean.



Administratzaileek batzar orokorra deitu beharko dute bi hilabeteko epean, eta edozein bazkidek batzarra **egin** dadila eskatu ahal izango die administratzaileei entitatea desegiteko arrazoiak daudenean.

Elkarrizketak mantendu



Soldaten igoera dela eta, zuzendaritzak sindikatuetakoko ordezkariekin **elkarrizketak mantenduko** ditu.



Soldaten igoera dela eta, zuzendaritzak sindikatuetakoko ordezkariekin **hitz egingo** du.

Zigorra altxatu



Sumarioan oraindik ez diote zigorra **altxatu**.



Sumarioan oraindik ez diote zigorra **kendu**.

Adostasun batera heldu



Aurrekoa egiaztatzeko, **adostasun batera heldu** beharko du botere adjudikatzaileak, baldintza orokorren 35.2 klausulan adierazten den bezala.



Aurrekoa egiaztatzeko, **ados jarri** beharko du botere adjudikatzaileak, baldintza orokorren 35.2 klausulan adierazten den bezala.

Emendakin



Lege Organikoari egindako sei **emendakin** onartu ditu Senatuko Komisoioak.



Lege Organikoari egindako sei **zuzenketa** onartu ditu Senatuko Komisoioak.

Akordio markoa



2004ko urriaren 6an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta Arabako Foru Aldundiak **akordio markoa** sinatu zuten.



2004ko urriaren 6an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta Arabako Foru Aldundiak **esparru-akordioa** sinatu zuten.

13.2. Esapide baztergarri batzuk

Zentzu horretan



Integrazio-zeregina ez da soilik eskolaren kompetentzia, gizarte osoarena baizik. **Zentzu horretan**, Etorकिन Integrazio Proiektu berria diseinatu dugu.



Integrazio-zeregina ez da soilik eskolaren kompetentzia, gizarte osoarena baizik. **Horrela**, Etorकिन Integrazio Proiektu berria diseinatu dugu.

Balizko kasuan



Hautatutako izangaiak lan kontratua formalizatu baino lehen plazari uko egingo liokeen **balizko kasuan**, ariketa guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda erabili ahal izango da.



Hautatutako izangaiak lan kontratua formalizatu baino lehen plazari uko egiten **badio**, ariketa guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda erabili ahal izango da.



Laburbilduz

Kalkoak berez ez dira baztertzekoak, soilik okerrekoak. Hizkuntzaren sistemari erasaten diotenak soilik baztertuko ditugu.

14. Besteen diskurtsoa erreproduzitzea

Testu juridikoen ezaugarrietako bat da aipamen asko jasotzen dituztela, testu objektiboagoak lortzen baitira horrela, zehatzagoak. Ohikoa da hitzez hitz aipatzea, esaterako, legeen testu-zatiak edo pertsonen diskurtsoetako esaldiak.

Hala ere, edukiaren ulergarritasuna oztopatzen dute bata bestearen atzetik kateatutako aipamenek.



Libreki sindikatze eskubidea espainiarren oinarriko eskubide gisa aitorturik, nahitaezkoa da eskubide hori lotzea Konstituzioaren 7. artikuluan egiten den aitortpenarekin zein han jasotzen den konstituzio-aginduekin, artikulua horretan, batetik, berariaz aitortzen baita langileen sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak «lagungarri direla dagozkien interes ekonomiko eta sozialak babesteko eta sustatzeko», eta, bestetik, «librea dela halako erakundeak sortzea eta guztiek ere beren jardura izatea, Konstituzioaren eta legearen errespetuan», «demokratikoak izan beharko dutela barne-egituraz eta jokamoldez» zehaztuta.

14.1. Aipamenak, beharrezko direnean

Esparru juridikoan baliabide eraginkorra dira aipamenak, baina ulergarritasunean traba egiten du testuak aipamenez josteak. Beraz, gehiegizko erabilera saihesteko, hobe da beharrezkoak ez diren aipamenak baztertzea.

Beharrezko aipamenak bi motatakoak izan daitezke:

14.1.1. Esaldi bakarreko aipamen laburrak

Paragrafoan bertan txertatu daitezke, komatxo artean eta letra arruntez.



Kode Zibilaren 1902. artikuluan xedatutakoaren arabera, «egitez edo ez-egitez beste bati kaltea eragiten diona behartuta dago eragindako kaltea konpontzera».

14.1.2. Aipamen luzeak

Aparteko paragrafo batean idatzi behar dira, ezkerraldeetik barrurago sartuta, koskarekin, komatxorik gabe eta letra tamaina txikiagoan. Etzana ere erabil daiteke, baina etzanez idatzitako testuak nekagarriak direnez, hobe da testu luzeetan, behintzat, etzana ez baliatzea.



Kode Zibilak III. kapituluko 164. artikuluan jasotzen du gurasoek ezingo dituztela administratu seme-alaben ondasunak ondorengo kasuetan:

1. Dohainik eskuratutako ondasunak, xedatzaileak beren-beregi hori ordenatu duenean. Ondasun horien administrazioari buruz, eta eurek ematen dituzten fruituen destinoari buruz, modu hertsian bete behar da xedatzailearen borondatea.
2. Oinordetza bidez eskuraturiko ondasunak, baldin eta bata, bestea edo bi-biok oinordetza horretan zuzen jaraunsgabetuak izan badira edo ezduintasun-arrazoia dela-bide ezin badira jaraunse izan. Ondasun horiek administratuko ditu kausatzaileak izendaturiko pertsonak, eta, horrelakorik izan ezean, eta ondoz ondo, beste gurasoak edo epaileak bereziki izendaturiko administratzaileak.
3. Hamasei urtekoa baino nagusiagoa den seme edo alabak bere lan edo industriaren bidez eskuratu dituen ondasunak. Semeak edo alabak berak burutuko ditu modu arruntean administratzeko egintzak; administratzeko modu hori gaunditzen duten egintzatarako, semeak edo alabak gurasoen adostasuna izan beharko du.

14.2. Aipamen motak

Bi motatakoak bereizi daitezke nola erreproduzitzen diren kontuan hartuta:

14.2.1. Aipamen zuzenak

Inolako egokitzapenik gabe erreproduzitzen dira. Bi puntuen ostean komatxo bikoitzak idazten dira, izan anguluarrek edo latindarrak ere deitzen direnak (« »), izan ingelesak (" ").

Komatxo arteko testu zatian beste aipamen bat dagoenean, komatxo sinpleak erabili ohi dira bigarren aipamen hori bereizteko (').



Abokatuak zera adierazi zuen: «Inork ez du bere errua aitortzen, nahiz eta bi aldeetan erantzuleak egon».

Abokatuak zera adierazi zuen: "Inork ez du bere errua aitortzen, nahiz eta bi aldeetan erantzuleak egon".

Ez da espazio zuririk utzi behar aipameneko testuaren eta komatxoaren artean: komatxoak eta aipamenaren lehen eta azken letra itsatsita jarriko dira, tarterik gabe.



Auzi-jartzaileak errekurtsua prestatzeko idazkian aurkaratzen du «lortu gabeko irabazi gisa sortutako ezintasun eta kalte ekonomikoen balorazioa», eta 148 euro eskatzen ditu kontzeptu horrengatik.

Aipamen zuzenen amaierako puntua aipamena ixten duten komatxoaren ostean jarri behar da, ez komatxoaren aurrean.



Apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 6.1.j) artikulua honako eginkizun hau esleitzen dio Zerbitzuen Zuzendaritzari: «Sailaren aholkularitza eta laguntza juridikoko jarduerak egitea, bertako gainerako organoek bereganatu gabeko arloetan».

Aipamena aditz deklaratiho baten ostean datorrenean (*esan, azaldu, adierazi, baieztatu, iragarri, aitortu, deklaratu...*), ez da komarik jarri behar aditzaren ondoren.



18. artikulua adierazten du «Demandatzailea hilabeteko epean aurkezten bada, haren aurrean...».

Aipamen luzeetan garrantzitsua da testuingururako adierazgarria ez den informazioa kendu eta eduki horren orde ez etenpuntuak idaztea (hiru bakarrik) kako artean: [...].



Oinarri juridikoan, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak honako hau adierazi zuen: «[...] auzi-jartzailearen aditu-txostenak ez du eskatzen den zorrotasun teknikoa [...]».

14.2.2. Zeharkako aipamenak

Esateriak bere enuntziatio-esparrura moldatzen ditu aipatutako hitzen oinarriko marka pertsonalak eta espazio-denborazkoak. Aipamen mota honetan ez da komatxorik erabili behar.



1147/2011 Errege Dekretuak, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duenak, 8. artikulua 2. zenbakian xedatzen du hezkuntza-administrazioek ezarriko dituztela Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, errege-dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa bete behar dute.

Ahal dela, ez erabili aipamen mistorik (aipamen zuzen eta zeharkakoak konbinatuta), testuaren interpretazioa zaildu dezakete eta.

14.2.3. Beste hizkuntza batzuetan idatzitako aipamenak

Testuko hizkuntza ez den beste hizkuntza batean dauden iturriak azaldu egiten dira, baina oso gutxitan aurkezten dira aipamen moduan. Dena den, batzuetan komeni izaten da hitzez-hitze aipamena idaztea.

Halakoetan, bi aukera ditugu:

Lehenengo aukera

Materiala jatorrizko hizkuntzan aipatzea eta itzulpena oin-oharrearantz jartzea. Honelakoetan, itzulpena (hizkuntza)ra eta bi puntu; ostean, itzultako testua idazten da.

François de la Rochefoucauld-ek esan zuenez, «Les poursuites ne dureraient pas si longtemps si la faute en était une des parties»¹.

¹ Itzulpena euskarara: «Auziek ez lukete hainbeste iraungo errua alderdietako batean bakarrik balego».

Bigarren aukera

Aipamenaren itzulpena jartzea testuan, eta jatorrizko testua oin-oharrearantz.

Honelakoetan, jatorrizkoa (hizkuntza)z eta bi puntu; jarraian, jatorrizko testua idazten da.

François de la Rochefoucauld-ek esan zuenez, «Auziek ez lukete hainbeste iraungo errua alderdietako batean bakarrik balego»¹.

¹ Jatorrizkoa frantsesez: «Les poursuites ne dureraient pas si longtemps si la faute en était une des parties»

Bi aukeren artean bigarrena gomendatzen dugu, testuaren hizkuntza-koherentzia gordetzen baitu.

15. Komaren erabilera

Testu juridikoen konplexutasunagatik, garrantzitsua da puntuazio zeinuk egoki erabiltzea. Gaizki puntuatutako testuak oker interpretatu daitezke, eta ulergaitzak ere izaten dira batzuetan.

Atal honetan, komaren erabileraz arituko gara. Koma pausaldi laburrak markatzen dituen esaldi mailako puntuazioa da. Puntuazioan dagoen pausaldirik txikiena izanik, koma batek aise alda dezake testuaren zentzua.



Enpresa esleipendunak, arduradun bat izendatu du zenbait funtzio izan dituen: lanaren prozesu osoa zuzentzea, proiektuaren egiteko guztiak koordinatzea, Administrazioarekiko harremanetan solaskidea izatea eta abar. Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak gainbegiratu eta laguntzaile talde batek lanaren jarraipena egin du.



Enpresa **esleipendunak arduradun** bat izendatu **du, zenbait** funtzio izan dituen: lanaren prozesu osoa zuzentzea, proiektuaren egiteko guztiak koordinatzea, Administrazioarekiko harremanetan solaskidea **izatea eta** abar. Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak **gainbegiratu, eta** laguntzaile talde batek lanaren jarraipena egin du.



Zerbitzua enpresaren egoitzan garatu da. Hala ere Sailburuordetzako zuzendaritzekin behar beste bilera egin dira, horren premia egon denean, eta horrelakoetan Eusko Jaurlaritzaren egoitzara, Lakuara etorri dira enpresako teknikariak.



Zerbitzua enpresaren egoitzan garatu da. Hala ere, Sailburuordetzako zuzendaritzekin behar beste bilera egin dira horren premia egon **denean; eta, horrelakoetan, Eusko** Jaurlaritzaren egoitzara, **Lakuara, etorri** dira enpresako teknikariak.

15.1. Koma batek aise alda dezake testuaren zentzua

Hainbat testuingurutan erabiltzen da, eta zalantza ugari sortu ohi ditu. Hori dela eta, hona hemen lagungarri izango zaizkizun arau batzuk:

15.1.1. Zein kasutan jarri behar dugu koma?

Mintzagaia eta esaldiaren gunea bereizteko



Langileek egindako lanari **esker**, langile gehienek hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute azken urte hauetan.

Aditz laguntzailea falta denean

Aditz laguntzailea falta denean, komak ordezkutzen du.



Gizarteratzeko ahalegin-txostena Eusko Jaurlaritzak **egin**, eta Administrazio Zentralak baloratuko du.

Parentesiak [], marrak [—], komatxoak [>>] eta abar erabiltzen ditugunean

Horrelakoetan, itxierako ikurraren ondoren jartzen da koma, baldin eta hasierako ikurraren aurreko esaldi-zatiak koma behar badu.



Inprentak prestaturiko galeradetan (paginaziorik gabeko inprenta-probetan, hain zuzen **ere**), argitaletxeko zuzentzaileak zuzenketa orokorra egingo du.

Zerrendako elementuak banatzeko



Positibotzat jo dituzte honako hauek: Sailak prestakuntzaren gainean erakutsi duen interesa, guztientzako prestakuntza eskaini izana, egindako esfortzua eta laneko zereginei lotutako eskaintza egin izana.

Zerrenda eta abar esapidearekin bukatzen denean, ez dugu komarik jarriko eta abaren aurretik; bai, ordea, etab. laburdura erabiltzen dugunean.

Esaldiak juntatzeko, juntagailuarekin batera

Esaldi bi elkartzen ditugunean, *eta* jartzen dugu bien arteko muga markatzeko. Esaldi bi baino gehiago elkartzeko, komak erabiltzen ditugu, eta azkenengo esaldirako *eta* juntagailua. Bada, joera hori hobeto daiteke bi esaldien arteko muga markatzeko **koma+juntagailua** erabilita: [, *eta*].



Administrazioen arteko komunikazioetan, hizkuntza ofizial bat zein bestea erabil daiteke, **eta** administrazio hartzaileak ezin du itzulpena eskatu.

15.1.2. Noiz ez dugu komarik jarri behar?

Subjektuaren eta aditzaren artean



Aurreko artikuluan aipaturiko egoeraren batean dauden administrazioetako langileek edo **agintariek**, ez dute prozeduran parte hartzeko eskubiderik.



Aurreko artikuluan aipaturiko egoeraren batean dauden administrazioetako langileek edo **agintariek** ez dute prozeduran parte hartzeko eskubiderik.

Mendeko perpausen barruan



Bake-epaileei egiten zaien **laguntza-eskaera**, **era** zuhur eta neurtuan egingo da.



Bake-epaileei egiten zaien **laguntza-eskaera** **era** zuhur eta neurtuan egingo da.

Komaz bereizitako unitate baten barruan

Mendeko perpausaren barruan elementuren bat tartekatu behar badugu, komaz bestelako puntuazio-markak (parentesiak edo marra luzeak) erabiltzea gomendatzen da, batez ere tartekiaren barruan koma erabili bada.



Ezin dugu ahaztu liburu bakoitza originala eta bakarra dela; beraz, liburu horrek kalte bat pairatzen **badu, demagun** uholde edo sute gogor **bat, jasotzen** dituen inskripzio eta datu guztiak gal daitezke.



Ezin dugu ahaztu liburu bakoitza originala eta bakarra dela; beraz, liburu horrek kalte bat pairatzen **badu —demagun** uholde edo sute gogor **bat—, jasotzen** dituen inskripzio eta datu guztiak gal daitezke.

Aditzaren eta perpaus osagarriaren artean



Arazoa **da, Jaurlaritzak** eta sindikatuek ez dutela akordiorik lortu.



Arazoa **da Jaurlaritzak** eta sindikatuek ez dutela akordiorik lortu.

Aditzaren eta zehar-galderaren artean



Herritarrak alderdi interesduna dela frogatu eta kopiatu nahi duen administrazio-**espedientea, zein** den zehaztu beharko du.



Herritarrak alderdi interesduna dela frogatu eta kopiatu nahi duen administrazio-**espedientea zein** den zehaztu beharko du.

Kontuan hartu



Debeku horien **salbuespen** ditugu tarteki eta aposizioak: koma bakarra jartzea egokia ez den kasuetan, egokia da tarteki edo aposizioei dagokien koma pareta jartzea.

Arazoa **da, betiere** arduradunaren **esanetan, txostenak** biharko bukatuta egon beharko duela.

16. Ezezko esaldiak, ilunago

Zentzu positiboan pentsatzeko joera daukagu; horregatik, oro har, **errazago ulertzen ditugu baiezeko esaldiak**: zehatzagoak eta argiagoak dira. Ezezko esaldiek irakurketa oztopatzen dute, eta zailagoa da ulertzen haien bidez adierazi nahi dena.



Prozedura hasteko eskaeran **ez badira betetzen** 66. artikuluko betekizunak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoa eskatutako beste batzuk, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta dena zuzentzeko edo **aurkeztu ez dituen** nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, **aurkezten ez baditu**.



Prozedura hasteko eskaeran **bete beharko dira** 66. artikuluko betekizunak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoa eskatutako beste batzuk. **Bestela**, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta dena zuzentzeko edo aurkeztu behar dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, **aurkezten ez baditu**, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

Hori horrela izanik ere, testu juridikoetan ohikoa da ezezko esaldi luzeak aurkitzea, eta, berez, irakurle askorentzat horrelako testuak ulertzea zaila bada, are zailagoa izango da ezezko esaldiz josita daudenak ulertzea. Beraz, erabili soilik behar-beharrezko direnean.

16.1. Baztertu ezezko bikoitzak

Ezezko bi edo gehiago dituzten esaldiak baztertu behar ditugu, irakurlea nahastu egiten baita. Esate baterako, ezezko bi dituen esaldi batean bata bestea ezeztatzen duenez, ezezkotik baiezkora aldatzeko beharrezkoa da adimen-ariketa egitea. Ariketa hori egitean, irakurketa-erritmoa hausten dugu, eta, gainera, inori ez zaio gustatzen testua berrirakurri behar izatea ulertu duela ziurtatzeko.

Kontu handiz erabili behar ditugu ezezko esanahia daukaten hainbat hitz: *izan ezik, baldin eta, nahiz eta, ezin eta salbu*. Hitz horiek ez partikularekin batera aurkezten ditugunean, are zailagoa da interpretatzea. Halakoetan, argitasunaren mesedetan, egokiena da esaldia berridatzi eta baiezkotasuna azpimarratzea.



Ez da aldaketarik onartuko, baldin eta ez badute batzarkide talde guztiek sinatzen.



Aldaketak onartuko dira, baldin eta batzarkide talde guztiek sinatzen badute.



Zentsura-mozioa ezin izango da bozkatu aurkeztu denetik bost egun igaro ez badira.



Zentsura-mozioa bozkatu ahal izango da aurkeztu denetik bost egun igaro badira.



Administrazioek jabetu beharra daukate: ezin da aurrera egin deserosotasunak izango direla aldez aurretik onartu ezean.



Administrazioek jabetu beharra daukate: aldez aurretik onartu behar da aurrera egin ahal izateko deserosotasunak izango direla.

16.2. Noiz dira egoki ezezkoak?

Oro har, baiezkoak argiagoak badira ere, salbuespen dira honako bi kasu hauek:

16.2.1. Debekuak adierazteko

Ezezko esaldiak oso egokiak eta argiak dira debekuak adierazteko.



Ebazpen horren aurka, demandatuak **ezin du** errekurtsorik jarri.



Adingabeek **ezin izango dute** abortatu gurasoen edo legezko tutoreen baimenik gabe.

16.2.2. Atzerakarga saihesteko

Subordinazio-marka eta aditza aurreratzeko aukera ematen dute ezezko esaldiek.



EHUrekin dugun harremana urteroko laguntza-aginduetara mugatzen da, lanaren antolakuntzan hobekuntza nabarmenik ekarriko duen lankidetzahitzarmena **sinatu gabe baitago**.



EHUrekin dugun harremana urteroko laguntza-aginduetara mugatzen da, **ez baitugu sinatu** lanaren antolakuntzan hobekuntza nabarmenik ekarriko duen lankidetzahitzarmenik.

16.3. Atzerakargarako joeraz

Testu juridikoetako ezezko esaldietan, aditz laguntzailea eta aditz nagusia bata bestearengandik urrun jartzeko joera izaten da, eta aditz nagusia esaldiaren amaieran jartzen da maiz, ulergarritasunaren kaltetan. Errazago ulertuko da aurreratu eta aditz laguntzailearen aldamenen jartzen bada.



Eskariak egiteko ezarrita dauden betekizunak bete ezean, mahaiak jakinaraziko du zeintzuk falta diren, eta **ez da** huts horiek konpondu arte eta eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztu arte **izapidetuko**.



Eskariak egiteko ezarrita dauden betekizunak bete ezean, mahaiak jakinaraziko du zeintzuk falta diren, eta **ez da izapidetuko** huts horiek konpondu arte eta eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztu arte.



Laburbilduz

Baiezko esaldiak ezezkoak baino hobeto ulertzen dira; hortaz, testu juridikoen irakurgarritasunari begira, ahaleginduko gara ezezkoak ezinbesteko kasuetan soilik erabiltzen, eta bi ezezko edo gehiago biltzen dituzten esaldiak baztertzen.

17. Letra larria, beharrezkoa denean bakarrik

Testu juridikoetan, letra larria gehiegi erabiltzen da helburu espresiboarekin. Orokortzen ari den erabilera patologiko horrek, ordea, testuak ilundu besterik ez du egiten; eta, gainera, letra larria oker erabiltzen da maiz.



Aurreproiektuan ez da jaso **A**utonomia **E**rkidegoko **A**ministrazioko **S**ailen egituratzeari buruzko araurik, ez eta **E**rakunde **I**nstituzionalak sortzeari edo antolatzeari buruzkorik ere. Sortuko den Toki Erakundeen Erregistroa gaur egungo Euskadiko Toki Administrazioko Erroldaren izena aldatzera mugatzen da. Erakunde **I**nstituzionalen antolaketari eta funtzionamenduari buruzko **A**raubidea arautzen duen **A**raudiak eragina izan dezake **S**ailen baten edo zenbaiten barne-egituraketan eta, beraz, transkribatutako **A**rauan aurreikusitako kasuan sartuko da.



Aurreproiektuan ez da jaso **a**utonomia-**e**rkidegoko **a**ministrazioko **s**ailen egituratzeari buruzko araurik, ez eta **e**rakunde **i**nstituzionalak sortzeari edo antolatzeari buruzkorik ere. Sortuko den Toki Erakundeen Erregistroa gaur egungo Euskadiko Toki Administrazioko Erroldaren izena aldatzera mugatzen da. Erakunde **i**nstituzionalen antolaketari eta funtzionamenduari buruzko **a**raubidea arautzen duen **a**raudiak eragina izan dezake **s**ailen baten edo zenbaiten barne-egituraketan eta, beraz, transkribatutako **a**rauan aurreikusitako kasuan sartuko da.

17.1. Erabilera-arauak

Letra larria eta xeheari buruzko arauak ez dira beti nahi besteko argiak eta zehatzak: zalantzak sortzen zaizkigu sarri. Hona hemen bien artean hautatzen lagunduko dizuten hiru printzipio:

Behar denean soilik erabili

Hizkera juridikoan, ohikoa da letra larria behar ez den tokietan jartzea, baina ez ahaztu letra larria salbuespena dela, eta zalantza denean hobe dela xehez idaztea. Honako hauek izan ohi dira oker erabiltzera bultzatzen gaituzten arrazoiak: a) araua ez ezagutzea, b) idazten duenak letra larriari helburu espresiboa eman nahi izatea, edo c) testuko elementuren bat nabarmendu nahi izatea.

Argi dagoenean, araua bete

Nola erabili behar den araututa dagoen kasuetan, arauak dioenari jarraitu.



863/2018 **errege dekretua**, uztailaren 13koa, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duena.



863/2018 **Errege Dekretua**, uztailaren 13koa, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duena.

Aukera bat baino gehiago dagoenean, bat hautatu

Kasu batzuk ez dira hain argiak, eta araua hainbat modutan interpretatzeko bidea ematen digute. Halakoetan, gure testurako aproposena aukeratu beharko dugu. Behin bat aukeratuta, testu osoan erabiliko dugu forma bera.



Zuzenbide Publikoko Sailaren antokaketa eta funtzionamendu-erregimenaren erregulazioari UPV/EHUri ezartzen zaion araudia aplikatuko zaio. Taldeak eta ikerkuntza sareak sortzea bultzatuko du **Sailak**. Gobernu Kontseiluak arautuko ditu ikerkuntza taldeen eta **sailaren** arteko erlazioa.



Sailak-Sailaren // sailak-sailaren

17.2. Xehetz ala larriz?

- Instituzioen izen ofizialak singularrean larriz eta pluralean xehetz idazten dira.



Leitzako **U**dalak hainbat **u**daletako eredu jarraitu du.

- Dekretu, lege eta erabaki jakinak larriz; aipamenak xehetz.



47/2018 **D**ekretua, martxoaren 27koa, Langileak Kudeatzeko zuzendaria izendatzeko dena.

Nafarroako Justizia Auzitegiak bertan behera utzi du 2015eko **d**ekretua.

- Arauen eta agirien izen ofiziala osatzen duten hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira, baita programa, hitzarmen, politika, plan eta bestelako agiri ofizial guztien izenen osagaiak ere; hori bai, betiere izen ofizialak sei hitz nagusi arte baditu.



Kode **Z**ibila

Zergekiko **F**oru **A**rau **O**rokorra

Kontsumitzaile eta **E**rabiltzaileen **D**efentsari buruzko **F**oru **L**egea.

Izenak zazpi hitz nagusi edo gehiago baditu, arauaren edo agiria ren lehenbiziko hitza eta arau motaren izena letra larriz hasita idaztea gomendatzen da; gainerako guztiak, berriz, xehetz.



Autonomia **E**rkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremanei buruzko **L**egea.

- Lege eta gainerako arau eta agiri ofizialen osagai formalak letra xehetz (kapitulua, atala, artikulua, eranskina, zatia, titulua, atalburua, xedapena, idazpurua...).



Legearen II. **a**talburuan 27. **a**rtikuluko b **a**rtalean eta III. **e**ranskinean...

Ohiturak edo zerbait nabarmentzeko nahiak hitzen bat larriz idazteko tentazioa sortu arren, hitz hauen hasierako hizkia xehez idazten da:



Dokumentuak

- akta
- akordio
- kapitulu
- hitzarmen kolektibo
- estatutu sozial
- txosten
- proposamen
- notario-protokolo
- erregelamendu



Karguak

- administraria
- kontseilaria
- zuzendaria
- sailburua
- diputatua
- gerentea
- atalburua
- epailea
- alkatea
- magistratua
- notarioa
- bazkidea

17.3. Letra larriaren funtzio enfatikoa

Testu juridikoetan, onartzen da elementu hauek osorik letra larriz nabarmentzea:

- Dokumentu baten helburua adierazten duten aditzak.



Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak
ZIURTATZEN DU
 ez daukala inolako kontratu-harremanik entitatearekin

- Aurrekariak edo oinarriak ordenatzen dituzten zenbaki ordinalak.



Aurrekariak
LEHENENGOA.- Azaroaren 29an emandako ebazpenaren bidez...
BIGARRENA.- Dagokion nagusiaren zenbatekoa...



Laburbilduz

Hitz bat larriz edo xehez idatzi behar den zalantza sortzen bazaigu, hobe da xehez idaztea.

18. Laburtzapenak



ED horren **x.p.**-ek **OLA**ri buruzko **aza.**-ren 21eko 44/2003 **leg.**-ren edukia garatzen dute (2003ko **aza.**-ren 22ko BOE, 280. **zk.**), eta bereziki, lege-testuaren II. **tit.**-ren III. **kap.**-an ezarritako **ak.**

Funsgabeko elementuak ezabatu ordez, laburdura eta sigla bidez aurkezteko joera izaten da sarritan testuak laburtzeko. Testu juridikoetan ez da hain nabarmena halakoetarako joera; hala ere, egoki erabiltzen saiatu behar dugu, bestela, testuen ulermena argitu beharrean, aise ilunduko baitute.



Errege Dekretu horren **xedapenek Osasun Lanbideen Antolamenduari** buruzko **azaroaren** 21eko 44/2003 legearen edukia garatzen dute (2003ko azaroaren 22ko BOE, 280. **zk.**), eta, bereziki, lege-testuaren II. **tituluaren** III. **kapituluan** ezarritako **aurreikuspenak**.

Zenbaitetan, idazten gabiltzan dokumenturako jargoi korapilatsua sortzen dugu beren-beregi, hitz batzuei sigla edo antzeko laburtzapenen forma emanda. Halakoek ulermena oztopatzen dute, eta hobe saihestea, nahikoa nekeza baita testu juridikoak ulertzea, horri hitz berriak memorizatzeko lana gehitu gabe ere.

Espazio arazorik ez dagoenean, egokiena hitzak osorik erabiltzea da. Alabaina, batzuetan egokiak dira laburdurak eta siglak. Erabiliz gero, komeni da hitza lehen aldiz agertzen denean osorik jartzea, eta hurrengoetan laburdura edo sigla erabiltzea.

18.1. Siglak

Hitzen hasierako letrekin osatzen diren ordezeko laburtuak dira; unitate lexikal osoa osatzen dute.

- Letra larriz, letra mota arruntez eta punturik gabe idazten dira: LAPL (Lan Arloko Prozeduraren Legea).
- Testu osoa letra larriz dagoenean (tituluetan eta), kasu-marka marrazkoz lotu ohi da: PFEZ-REN GAINEKO ARAUDIA.
- Deklinatzerakoan (eta ahoskatzerakoan), kontuan izan sigla batzuk letraka irakurtzen direla, eta beste batzuk, silabaka. Sigla eta deklinabide-atzizkia marratxorik gabe batzen dira, salbu eta letra bera denean siglaren azkena eta atzizkiaren hasierakoa: GSko txartela; EITBk, BBK-k eta EGK-k lagunduko dute.
- Izen arrunt gisako siglak, ordea, hitz arruntak bezalaxe deklinatuko dira, determinatzaile eta guzti: NANaren fotokopia.
- Europar Batasunaren argitalpen ofizialetan indarrean dagoen hitzarmenaren arabera, sei letra edo gehiagoko sigletan, lehen letra baino ez da idatzi behar letra larriz, baldin eta sigla hitz gisa irakur badaiteke: Unicef (Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa).

Oro har, siglak ez dira itzultzen, batez ere herrialde jakin batekoak direnean, baina bai haiek ordezkatzeko dituzten izenak.

- Nazioarteko erakundeek siglak euskaratu egiten dira, batez ere oso erakunde ezagunak direnean: NBE (Nazio Batuen Erakundea).
- Nazioarteko forma oso ezaguna denean, forma hori erabiltzen da: NATO (Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea).

18.2. Laburdurak

Hitza edo sintagma osatzen duten letrak murriztuz eratzen diren idatzizko laburtzapenak dira.

Fitxetako datuetan eta helbideetan egokiak dira laburdurak, baina testu barruan hobe da forma osoak idaztea, batez ere, deklinatuta agertu behar dutenean. Laburduraren bukaerako puntuaren ondoren, hutsune zuria besterik ez da onartzen.

- Oro har, laburdurak letra arruntez eta puntu eta guzti idatzi behar dira: f.-diptu. (foru-diputatu). Hala ere, laburdura zehatz batzuk letra larriz idazten dira: P.D. (post data).
- Ez dago gaizki testu berezietan alorrean alorreko laburdurak idaztea; baina sarreran agertu beharko da erabilitako laburdura ezohiko edo antzemangaitzen zerrenda, eta horietako bakoitzaren esanahia.
- Hitz laburrak ez dira laburtu behar testuetan. Esate baterako, ez erabili *ik. ikus* esateko.
- Pertsona izen eta abizenetan, ez erabili laburdurarik. Dena dela, lekurik izan ez eta laburtu behar izanez gero, lehen letra erabili.

18.3. Akronimoak

Izen sintagma edo perpaus bateko hasierako letrak edo bestelako zatiak batuz sortzen diren hitzak dira. Siglen antzeko laburtzapenak dira, baina akronimoetan lehen letra soilik idazten da larriz, eta hitz arruntak bezala irakurtzen dira.



Eudel (**E**uskal **U**dalen **E**lkartea)
Eudelekin batera aztertuko dugu.

18.4. Sinboloak

Jakintza alorretako laburdurak edo zeinu grafikoak dira, nazioartean finkatuak. Gehienetan, neurriak edo magnitudeak adierazten dituzte.

- Punturik gabe idazten dira, eta gehienek zifraz idatzitako zenbakia aurretik daramate.
- Marratxoak jartzen da sinboloaren eta atzizkiaren artean.
- Testu barruan ez da komeni sinboloak erabiltzea: hitza osorik idaztea da egokiena.
- Tauletan, sailkapenetan eta fitxetan, egokia da sinboloak erabiltzea.

Ha motaren arabera	zko.
Ureztatutako 2 ha-ko	250 €
Lehorreko 2 ha-ko	215 €

- Zenbakia eta sinboloaren artean tartea utzi behar da, eta ezin dira bereizi bi lerrotan zenbakia eta sinboloa.



Ustiattegiko laborantza-lurren azalera: **10-30**
ha



Ustiattegiko laborantza-lurren azalera: **10-30 ha**
Ustiattegiko laborantza-lurren azalera:
10-30 ha

19. Aditzari buruzko zalantzak

Euskarazko testu juridikoetan, aditzari lotutako hainbat aspektutan nabaria da gazteleraren eragina, baina morrontza horretatik aldenduz gero, testu atsegin eta naturalagoak osatuko ditugu.



Birsartzeko betebeharrak **ziurta ez ditzaten** irakasleek, **ez dute** lehiaketan lortutako destinoaz **jabetzerik izango**. Lanpostu hori hutsik geratuko balitz, **egin dadin** hurrengo deialdian beteko litzateke.



Birsartzeko betebeharrak **ziurtatzen ez dituzten** irakasleak **ezingo dira** lehiaketan lortutako destinoaz **jabetu**. Lanpostu hori hutsik geratzen bada, **egingo den** hurrengo deialdian beteko da.

19.1. Egoki erabiltzeko zenbait proposamen

Jarraian jaso ditugunak ez dira okerrak, baina askoz ere testu jatorragoak sortuko ditugu euskararen berezko egiturak erabiltzen baditugu.

19.1.1. Esaldi pasiboak

Egitura aktiboek, pasiboak baino naturalagoak izateaz gain, estilo biziagoa ematen diete edukiei.



Buletin hau ematean, salaketa **jakinarazia izan** da eta zigor-jardunbideari **hasiera emanda geratzen** da.



Buletin hau ematean, salaketa **jakinarazten** da eta zigor-jardunbideari **hasiera ematen zaio**.

Era berean, egitura aktiboek argi adierazten dituzte ekintzen agenteak.



Interesdunaren aldetik oinarriak ez betetzeak kobratu diren kopuruak osotara itzulitza sorraziko du.



Oinarriak betetzen ez baditu, **interesdunak** diru guztia **itzuli beharko du**.

19.1.2. Baldintza hipotetikoa

Baldintza hipotetikorako joera izaten da sarri testu juridikoetan. Baina, ekintza gertagarriak diren neurrian, egokiena forma ez-hipotetikoaren alde egitea da.



Epaimahaiak **ikusiko balu** plazara aurkeztutako izangaietako batek ere ez dituela betetzen beharrezko baldintza minimoak, hutsik **deklaratu luke** plaza.



Epaimahaiak **ikusten badu** plazara aurkeztutako izangaietako batek ere ez dituela betetzen beharrezko baldintza minimoak, hutsik **deklaratu du** plaza.

Dena den, forma hipotetikoak ez dira okerrak, baina erabiliz gero, garrantzitsua da baldintzaren eta ondorioaren arteko koherentzia formala gordetzea.



Kontuaren titularrak jardunbidezko obligazio hori beteko ez **balu**, arau-hauste larritzat hartuko **da** eta zigorespedientea irekiko **zaio**.



Kontuaren titularrak jardunbidezko obligazio hori beteko ez **balu**, arau-hauste larritzat hartuko **litzateke** eta zigorespedientea irekiko **litzaioke**.

19.1.3. Subjuntiboa

Subjuntiboa ohikoa da testu juridikoetako zenbait eduki emateko: baldintzak, eginbeharrak eta abar. Euskaraz, naturalagoa da eduki horiek indikatiboan adieraztea.



Espedientea hasi zuen agintaritzak aldi baterako etetea ezar dezake herri interesaren babesak, salbuespen gisa, hala **eska dezanean**. Eteteak kalte egiten dietela **uste dezatenek** erabakia **argitara dadineko** egunaren biharamunetik...



Espedientea hasi zuen agintaritzak aldi baterako etetea ezar dezake herri interesaren babesak, salbuespen gisa, hala **eskatzen badu**. Eteteak kalte egiten dietela **uste dutenek** erabakia **argitaratzen den** egunaren biharamunetik...

19.1.4. Aginterako geroaldia

Gaztelerazko prosa juridikoan ohikoa da aginterako geroaldia; euskaraz, ordea, ulergarriagoa da orainaldiko agintera.



Enpresa bakoitzak ez du parte hartzeko proposamen bat baino gehiago **aurkezterik izango**; halaber, banaka parte hartzen duenak ez du aldi baterako enpresa-elkarte bidez **parte hartzerik izango**.



Enpresa bakoitzak **ezin du** parte hartzeko proposamen bat baino gehiago **aurkeztu**; halaber, banaka parte hartzen duenak **ezin du** aldi baterako enpresa-elkarte bidez **parte hartu**.

19.1.5. Performatiboak edo gauzatzaileak

Araugintzan ohiko enuntziatuak dira, eta ekintza unean bertan betetzen dela adierazten dute. Horrelakoetan, aditzek aspektu ez-burutua hartzen dute.



Hori dela eta, eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko...



Hori dela eta, eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko...

20. Lexiko egokia aukeratzeko zenbait irizpide



Eskabideak aurkezteko epea hamar egunekoa izango da, epe hori zabalteko **aukeraren kalteetan gabe**.

Hizkera juridikoan berariazko lexikoa erabiltzen da, zehaztasun handiagoa lortu nahian. Baina, maiz, herritar arruntak ulertzeko zailegia izaten da lexiko hori. Horregatik, termino ulerterrazagoak erabiltzea komeni da, betiere zehaztasunari eta argitasunari kalterik egin gabe. Dokumentu juridikoetan zilegi da hizkera argia erabiltzea.



Hamar egun izango dira eskabideak aurkezteko; **nolanahi ere**, epe hori luzatu ahal izango da.

20.1. Lexiko zehatza, baina ulertzeko modukoa

«Hartzaile bikoitzen dilema» dela eta, zailtasunak sor daitezke testu juridikoak idazterakoan; izan ere, testuok adituei (juristei) zein adituak ez direnei (ukitutako alderdiei) zuzendu behar zaizkie. Idazleak, oro har, teknizismoaren eta naturaltasunaren arteko proportzio egokia lortze aldera, testu zehatzak eta edonork ulertzeko modukoak idatzi behar ditu. Baina aditu juristei ahaztu egiten zaie hizkera juridikoa jende arruntak ere ulertzeko eskubidea duela; eta, ondorioz, jargoi guztiz teknikoa erabiltzen dute (arrotza, aditu ez direnentzat), esanahi bera duten hitz sinpleagoak erabili beharrean.

Gardentasun eta publikotasunaren printzipioak errespetatuko badira, adierazpen juridikoa hizkera arruntera hurreratu behar da. Horretarako, zehaztu behar dugu hizkera juridikoko zein teknizismo ordeztu daitezkeen forma ulerterrazagoak erabilia, eta zeintzuk diren ordezkaezinak.

20.2. Ordezkatu daitezkeen terminoak

Testu juridikoetan ohikoak diren hitz asko ordeztu daitezke forma errazagoekin, dokumentuen hartzaileen lexiko eremutik kanpo geratzen diren esapideak izan ohi baitira.

Hona hemen lau irizpide hitz egokiak aukeratzeko:

20.2.1. Hitz ezaguna

Hobe hitz ezaguna erabiltzea, eta urrunekoa baztertzea.



- kausitu
- jazokuna
- herri-lanari



- aurkitu
- jazoera, gertaera
- funtzionario

20.2.2. Hitz zehatza

Hobe hitz zehatzak abstraktuen ordeztu.



- hiritargoa
- prozesuaren substantziazioan jardun
- egiaztagiraren igorpena egin



- herritarak
- prozesua bideratu
- egiaztagiria bidali

20.2.3. Hitz bakarra

Itzulinguruak erabili beharrean, hitz bakarra erabiltzea egokiena.



- aldateketa jasan
- elkarrizketa mantendu
- adostasun batera heldu



- aldatu
- elkarrizketatu
- adostu

20.2.4. Hitz laburra

Hobe hitz laburraren alde egitea, eta luzea baztertzea.



- aginpide
- izenpetu
- jabetzuntza
- hutsegite
- erantzukizun



- aginte
- sinatu
- jabetze
- akats
- ardura

20.3. Termino ordezkaezinak

Testu juridikoetan, ezinbestekoak dira hitz tekniko batzuk, zehaztasun semantiko handiagoa baitute. Helburu nagusia testuari behar besteko zehaztasuna ematea da, baina, era berean, ulergarria izan behar du testuak. Beraz, zenbait teknika erabil daitezke hartzaileak teknizismo horiek errazago uler ditzan:

20.3.1. Sinonimia

Terminoaren ondoren esanahi bereko hitz arruntago bat gehitu dezakegu parentesi artean.



Gune horretatik **izapidetzen** ari diren espedienteak zein amaitutako espedienteak kontsulta ditzakezu.



Gune horretatik **izapidetzen (tramitatzen)** ari diren espedienteak zein amaitutako espedienteak kontsulta ditzakezu.

20.3.2. Parafraasiak

Kontzeptu teknikoa esaldi ulerterrazagoak erabiliz berridatzi dezakegu.



Eskabidearen hutsuneak zuzentzeko 10 eguneko epea duzu. Hala egiten ez baduzu, Administrazioak **atzera egitetzat** ulertuko du.



Eskabidearen hutsuneak zuzentzeko 10 eguneko epea duzu. Hala egiten ez baduzu, Administrazioak **atzera egitetzat** ulertuko du; **alegia, ez duzula eskabide horrekin jarraitu nahi.**

20.3.3. Definizioa

Kontzeptu konplexuak argitzeko, ohar bidezko azalpenak edo testu amaierako glosarioak erabil ditzakegu.



Isuna hogeit **egun naturaleko epean** ordainduz gero, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, zenbatekoa ehuneko 50ean murriztuko dizugu, eta ondorio hauek izango ditu (Bide Segurtasuneko Legearen 74.3 eta 80. artikuluen arabera): (...)



Isuna hogeit **egun naturaleko epean**^[1] ordainduz gero, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, zenbatekoa ehuneko 50ean murriztuko dizugu eta ondorio hauek izango ditu (Bide Segurtasuneko Legearen 74.3 eta 80. artikuluen arabera): (...)

^[1] Egun naturalak dira....

Bibliografia

- AGIRRE, Jesus Mari. *Itzulpen estrategiak. Gaztelaniazko testu juridikoak eta administratiboak*. Donostia: IVAP, 2009.
- ALBERDI, Xabier; SARASOLA, Ibon: *Euskal estilo-libururantz*. Bilbo: UPV/EHU, 2001.
- BERRIA egunkaria, *Estilo liburua* [linean]. Hemen ikusgai: <https://www.berria.eus/estiloliburua/>
- ETXEBARRIA, Jose Ramon. *Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2011.
- EHUKO EUSKARA INSTITUTUA. *Kalkoen Behatokia* [linean], 2012 Hemen ikusgai: <http://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/>
- EUROPAKO BATZORDEKO ZERBITZU JURIDIKOA: *Guía práctica común del Parlamento Europeo, del Consejo y de la Comisión para la redacción de textos legislativos de la Unión Europea*, 2016. Hemen ikusgai: <https://op.europa.eu/es/publication-detail/-/publication/3879747d-7a3c-411b-a3a0-55c14e2ba732>
- EUSKALTZAINDIA, *Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE). A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak* (3. argitaraldia). Bilbo: Euskaltzaindia, 2019.
- EUSKALTZAINDIA, Jagon Saila, Corpus Batzordea (Pello Esnal koord.). *Testu-antolatzaileak: Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2008.
- GARZIA, Juan. *Kalko okerrak* (EIMA) [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005. Hemen ikusgai: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/kalko_okerrak.pdf
- GARZIA, Juan. Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak (EIMA) [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2014. Hemen ikusgai: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/libro/puntuazioa-egoki-erabiltzeko-gida-oinarriak-jarraibideak-eta-aholkuak/>
- IVAP (Zenbaiten artean). *IVAPeko estilo-liburua* [linean]. Vitoria-Gasteiz: IVAP, 2009. Hemen ikusgai: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf
- IVAP (Zenbaiten artean). *Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez* [linean]. Donostia: IVAP, 2003. Hemen ikusgai: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Galdezka1.pdf

- IVAP (Zenbaiten artean). *Komunikazio Elektronikoa. IVAPen gomendioak web-orriak idazteko* [linean]. Vitoria-Gasteiz: IVAP, 2013. Hemen ikusgai: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/komunikazio_elektronikoa.pdf
- IVAP (Zenbaiten artean). *20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos* [linean]. Oñati: IVAP, 2017. Hemen ikusgai: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Mejorar_textos_juridicos/20_consejos.pdf
- LOZANO, Joseba. «Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean», in *Eleria*, 1. zk., 1997, 55-75 or. Hemen ikusgai: <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/Eleria/01/01055075.pdf>
- MONTOLÍO, Estrella (Arg.). *Hacia la modernización del discurso jurídico*. Barcelona: Publicacions i Edicions de la Universitat de Barcelona, 2012.
- MUJKA, Alfontso. *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* (EIMA) [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008. Hemen ikusgai: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/liburua/letra-larriak-erabiltzeko-irizpideak/>
- PETRIRENA, Patxi. *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* (EIMA) [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2010. Hemen ikusgai: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/MORFOSINTAXIA_PDFa.pdf
- PRIETO DE PEDRO, Jesús. «Arauak, hartzaileek ulertzeko moduan idatzi behar dira», in *Eleria* 8. zk., 2001, 99-108 or. Hemen ikusgai: <https://core.ac.uk/download/pdf/11503196.pdf>
- PRIETO DE PEDRO, Jesús. «Hizkera argiak estatu demokratikoetan duen tokia», *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria, 12. zk., 1996, 18 or. Hemen ikusgai: <https://ivap.euskadi.eus/z16-a5app2/eu/t59auUdaWar/R1/sumario/12>
- RAE. *Ortografía de la lengua española*. Barcelona: Espasa Libros, 2010.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Ortotipografía* (EIMA) [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004. Hemen ikusgai: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/ortotipografia.pdf
- URRUTIA, ANDRES (KOORDINATZAILEA). «Legeen eta administrazioaren hizkera, testu-antolatzailearen ikuspegitik», in *Euskara*, 2008, 53. zk. 525-546 or.
- URRUTIA, Andres eta LOBERA, Angel (Arg.). *Euskara, zuzenbidearen hizkera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1995.
- ZUBIMENDI Joxe Ramon eta ESNAL, Pello. *Idazkera-liburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO